



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 7a

115. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (33. or.).

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuako kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzkoa. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (34. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan aniztasunaren arretaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztu du (36. or.).

—Jabeldura, aniztasunari eta migrazioei buruzko politika orokorrari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztu du (37. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du herri-festen polizitzazioa, eta udalak, kontzejuak, peñak eta kultur nahiz auzo elkarteak premiatzen ditu festagune anitz, integratzaile eta gorrotorik nahiz propaganda politikorik gabekoen alde lan egin dezaten. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (37. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatu egiten duela Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala (Comprehensive Economic and Trade Agreement). EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (39. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak 1936ko kolpe militarren biktima izatea aitortzen baitie Sanjurjo Tertzioan izena emandako eta San Gregorio Zelaian fusilatutako nafar herritarrei. Eledunen Batzarrak onetsia (41. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Urzainkin, Izaban eta Lesakan izandako lan-istripuetako azken biktimen familiei eta hurbilekoei, eta lan-istripu bat pairatu duten guztiei ere adierazi nahi die elkartasun hori. Eledunen Batzarrak onetsia (41. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baititu Zainketa Aringarrien Nazioarteko Egunaren karietara mundu osoko erakundeek egiten dituzten aldarrikapenak. Eledunen Batzarrak onetsia (42. or.).
- Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (42. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Iruñean, Lizarran eta Tuteran erresonantzia magnetikoen zerbitzua emateari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (43. or.).
- Galdera, Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzuko itxarote-zerrendei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (44. or.).
- Galdera, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (44. or.).
- Galdera, behar adina ikasgela ez edukitzeagatik ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa berreskuratu ezin izan duten ikastetxe publikoei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (45. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak bertan behera utzitako edo geroratutako jarduketei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (46. or.).
- Galdera, A ereduan eta D ereduan Haur Hezkuntzako lehen mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara bitarte komunikazio-hizkuntza gisa euskara duten saioak gehitzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (47. or.).
- Galdera, etxetresna elektrikoak konpontzeko jarduera ekonomikoei zergak jaisteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (47. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko arlo ezberdinetako lankidetzajarduketei eta -esparruei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (48. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2016ko irailaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuari igorri dio 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun baliioduneko epea hasiko da, zeina 2016ko azaroaren 2an, eguerdiko hamabietan, bukatuko baita.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkionte foru lege proiektuari.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

1. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko mar-txoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123.4 artiku-

luak xedatzen duenez, toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kapital transferentzietarako ezarritako zenbatekoaren banaketa inbertsio planak sortzen dituzten foru legeetan paratuko den moduan egingen da.

Aspaldi honetan nabaria da gero eta adostasun handiagoa dagoela toki entitateek Nafarroa osoaren tributu ahaleaginean parte-hartze zuzen, proportziorik eta egonkorra izan beharraz.

Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Lege indardunaren 61.1. artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, hartarako gaitasuna ematen dion foru lege baten esparruan, inbertsio planak ezarriko ditu, toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresna gisa, Nafarroako lurralde osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea helburu.

Oinarrizko helburu horri kalterik egin gabe, beharrezkoa da lurralde desoreka nabarmen batzuk zuzentzea, toki entitateetan ekipamenduz eta zerbitzuez egiaz baliatzeko aukerei eragiten dietelako. Lurraldeen arteko oreka areagotu beharra dago, Iruñerriak bereganatu duen zentralitateari kontrapisua eginez, galtzaile izan diren landa eremuen alde, izan ere, eremu horiek populazioa galtzeko prozesuetan sartuta daude eta gero eta arazo gehiago dituzte bizilagunei kalitatezko zerbitzu publikoak emateko. Nafarroako bizilagun guztiek izan beharko lituzkete, inguru hurbilean, populazio gehien dituzten eremuetan ematen diren maila bereko ekipamenduak eta prestazioak, toki esparrukoak.

Hasierako baldintza horrekin heldu zaio Nafarroako toki administrazioa berrantolatzekeo prozesuari; berrantolaketak eskumenei eta antolaketa ereduari ez ezik, finantzaketari ere eraginen dio, oinarrizko printzipio hauekin bat eginda: subsidiarioritasuna, egonkortasuna, udal autonomia, diru-sarreretako ekitate, finantza askitasuna eta lurraldeen arteko elkartasuna.

Horrek berarekin dakar egungo araudi batzuk, toki ogasunei buruzkoak eta toki entitateek Foru

Komunitateko tributuetan izan beharreko parte-hartzeari buruzkoak, errotik birpentsatzea, toki esparruan eman beharreko zerbitzuetarako finantzaketa egokia ziurtatzeko, xede zehatzetarako diru-laguntzen menpe egon gabe, eta transferentzia arruntak eta kapital transferentziak bereiztean datzan egungo eredia gainditzeko asmoarekin.

Nafarroako toki administrazioaren erreforma zabal hori gauzatzeko prozesua abian jartzeko, komeni da Toki Inbertsioen Plan honen iraupena 2019az harago ez luzatzea, toki finantzaketarako eredu berri hori datorren bitartean. Pentsatzekoa da ordurako toki inbertsioak finantzatzeko lege esparru berri eta egonkorra izanen dugula.

2. Oinarri hauen gainean, foru lege honek arautzen duen Toki Inbertsioen Plana hiru ataletan egituratu da.

Inbertsio Programen atalean, eranskinak barne, hiru zerrenda daude, ordenatuta eta lehen-tasunak zehaztuta, eta bertan jarduketa zehatzak jasotzen dira, hiru arlo hauetan: uraren goi hornidura; hiri hondakinen tratamendua eta belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboak. Azken horiek ezinbestekoak dira teknologiaren ikuspuntutik aurreratuen artean egon nahi duen gizarte batentzat, eta, gainera, derrigorrezkoak dira Europako Agenda Digitala egokiro betetzeko, agiri horri jarraikiz 2020. urterako Europako populazio osoak izan beharko duelako 30 megatik gorako Internet zerbitzua emateko gai diren sareen estaldura, eta ahalbidetu gutxienez etxeen erdiek 100 megatik gorako Internet konexioa izatea. Horrela, nabarmen hobetuko da toki entitateetako konektibitatea, eta estaldura hori ez duten Nafarroako landa eremuetan egun dagoen lurralde desoreka zuzenduko da.

Toki Programazioko atalean sartuta daude egun toki entitateek gehien eskatzen dituzten inbertsio motak.

Azkenik, aurreko atalek barne hartzen ez dituzten tokiko inbertsioetarako beste lehentasun batzuk gauzatzeko finantzabide malgu, azkar eta eraginkorra eskura jartzeko xedearekin, libreki erabaki beharreko jarduketetarako zenbateko garrantzitsu bat ezarri da.

3. Foru lege honen helburuetako bat laguntza ematea da araua erabili, ulertu eta zabaltzeko. Horregatik, prozeduraren diseinu arina egin da, lege mailako arau-tresna bakar batean bilduta, Toki Inbertsioetarako aurreko planek erantsia izaten zuten erregelamendua alde batera utzita, kudeaketa zaildu eta hasiera atzeratzen baitzuen. Xede horrekin, foru lege honetan planaren operatibitatea erabatekoa izan dadin behar diren xedape-

nak sartu dira, egitura honekin: hiru kapitulu, sei xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bost eranskin.

Lehen kapituluan, xedapen orokorreari buruzkoan, xedea zehazten da, printzipio gisa jasotzen du toki entitateek planaren jarraipenean eta kudeaketaren kontrolean parte hartzea, eta aurrekontuen arloko gai batzuei heltzen die.

Bigarren kapituluan, Inbertsio Programak eta Toki Programazioa jasotzen dituen horretan, lau atal daude. Lehenbiziko bietan planean sartzeko prozedurak ezartzen dira, bai eta inbertsioek finantzaketa jasotzeko bete behar dituzten baldintzak ere. Kapitulu horretako hirugarren eta laugarren ataletan bideragarritasun txostenak eta prozedurarako arau komunak arautzen dira.

Hirugarren kapituluak, azkenik, libreki erabaki beharrekoen atala arautzen du, hau da, toki entitate onuradunek libreki erabaki beharreko inbertsioak biltzen dituen.

4. Toki Programazioaren atalean, proposamenak lehenesteko ardatz nagusi bat egonen da: jasotako eskaeren sailkapena, bi elementurekin egina: inbertsiorako beharraren maila, parametro teknikoaren arabera baloratua, eta banaketarako justizia printzipio bat, aurreko Toki Inbertsioen Planaren babesean bizilagun bakoitzeko jasotako kopurua kontuan hartzen duena. Interes sozialeko irizpideak erantsi dira, azpiegiturak eta ekipamenduak mendekotasun legearen babeseko pertsonen eta desgaitasuna edo mugitzeko zailtasunak dituztenen beharretara egokitzen laguntzeko, bai eta derrigorrezko hezkuntzako ikasleen beharretara ere.

Era berean, toki entitateek egindako eskaerak aintzat hartuz, aurreikusi da zoladurak eta sareak egiteko lanetako lur azpiko kanalizazioek finantzaketa izatea, etorkizunean etxeetako telekomunikazioen, energia elektrikoaren eta kaleko argien hornidurak paratzeko, eta horrela, aukera emateko Nafarroako biztanleei teknologia berriak eskura izan ditzaten, bereziki eremu behartsuenera.

Horrekin batera, udal ekipamenduak eta azpiegiturak indarreko araudira egokitzeko jarduketak egiteko beharra atzeman denez, diru-laguntzetarako berariazko lerro bat aurreikusi da.

Horrez gain, etorkizunean amortizazio eta mantentze-lanetako kostuak dakartzaten inbertsioek puntuazio prima bat jasoko dute baldin eta kostu horiek lan mota bakoitzerako kalkulatzeko den batez bestekoa baino txikiagoak badira. Gogoratzeko moduko okerreko esperientzia batzuek agerian utzi dute ez dagoela inbertsio bat

zuzen ebaluatzerik kostu horiek kontuan hartu gabe.

Atal honetan zehatz-mehatz jasota daude inbertsioak baloratzeko irizpideak, aurreikusitako obra moten arabera. Horrela, azpiatal batzuk sortzen dira arlo hauetan: hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako tokiko sareak; zoladurak, sareekin eta sarerik gabe; kaleko argiak; udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitztea; eta bizitoki iraunkorretara doazen bideak eta biziguneen artekoak. Arlo honetan, egokitasuna, eraikina eta funtzioena, irisgarritasuna, segurtasuna, osasungarritasuna eta eragimena areagotzen dituzten jarduketak indartuko dira batez ere.

5. Inbertsioen bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren analisia kasuan kasuko toki entitateek jartzen duten finantzabide osagarri mugatuko da. Ez da irizpide bakar bat erabiliko beharko, baizik eta, zerbitzu eskudunaren iritziz, toki entitateek ordaindu beharreko zatia finantzatzeko erabil daitezkeen guztiak, hala nola, diruzaintzako garrinak, ondare-besterentzeen emaitzak, epe luzerako kreditu eragiketak edo urte anitzeko aurrekontu zuzkidurak.

Hasiera batean inbertsioaren ebaluazio positiboa lortzen ez duten toki entitateentzat ere alternatiba batzuk egonen dira. Ahalmen ekonomiko nahikorik ez duten entitateentzako salbuespeneko araubidea mantentzen da.

6. Inbertsio Programei eta Toki Programazioari dagozkien prozedura aurreikuspenek bi ataletarako arau komunak ezartzen dituzte, eskaerak azkar eta arin tramitatzen laguntzeko, eta, batik bat, aurreko planetan sortutako oztopo administratibo batzuk konpontzeko.

Lanen hasierari dagokion guztia zehazki arautzen da, bai eta eskuordeturik edo udalaren ekimen faltaren ondorioz egin beharreko jarduketan kasuan bete beharreko baldintzak ere. Kasu bakoitzean erabili beharreko eskabide erduei eta eskatutako dokumentazioari buruzko informazioa IV. eranskinean jasota dago. Beharrekin bat datozen epeak eta prozedurak ezartzen dira, planaren egiazko betetze maila ahalik eta altuena izan dadin errazteko, eta, horrekin batera, herri onuradun bakoitzean jarduera ekonomikoaren sustapenean ahalik eta ondorio handienak izateko.

Toki entitateen finantza kudeaketa errazteko, lanen hasieran ehuneko 40ko aurrerakina ematea aurreikusi da. Toki entitateak beste ehuneko 20 ordaintzea eskatzen ahalko du obraren erdia egin da. Gainerakoa obra amaitu ondoren ordainduko da.

Toki Inbertsioen aurreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko martxoaren 1eko 3/2016 Foru Legean aurreikusi zen bezala, enpresa kontratistaren adostasunik ez dagoenean, inbertsioen amaierako ordainketak eskatzeko aski izanen da harrera-akta bat aurkeztea, obra aurreikusitako erabilera publikorako entregatu daitekeela frogatzen duena, kasuko ordainketaren justifikazioarekin batera. Horrela, arrisku zehatz bati aurrea hartzen zaio, alegia, obra egin duen enpresak, ados ez baldin badago harrerarako baldintzekin eta toki entitatearekin izenpetutako kontratuaren likidazioarekin, agiri horiekin dituen ustezko desadostasunak erabiltzeko tentazioa izan dezake, presio neurri gisa, desadostasunak konpontzeko legez ezarritako bideetara jo beharrean.

Administrazioaren sinplifikazioa xede duten beste aurreikuspen batzuen artean, proiektuaren erredakzioko eta obra zuzendaritzako lansarien kontzeptuan laguntza jaso dezaketen zenbatekoak kalkulatzeko prozedura bat ezartzen da, errazagoa eta eraginkorragoa.

Xehetasun handiz ezartzen dira inbertsioak planean sartzeko gutxieneko baldintzak, eta betetzen direla bermatzeko beharrezkoak direnak aurreikusten dira. Obrak planetik kanpo geldituko dira haien kostua legez jabeek edo sustatzaileek bere gain hartu beharrekoak direnean edo interes partikular hutsagatik egiten direnean.

Bereziki nabarmendu behar da betebeharrak, aldeko hiru txosten eskuratzeko alegia: teknikoa, juridikoa eta ekonomikoa. Horien izaera lotesleak bermatzen du foru lege honetan xedatutakoa objektibitate handienaz aplikatuko dela.

7. "Larrialdiko" jarduketaren kontzeptua bi zentzutuan argitu behar da.

Definizioa zabaltzen da, pertsonen edo ondasunen segurtasunerako berehalako arrisku egoeran dauden azpiegiturak eta ekipamenduak berrietzeko jarduketa mota asko bertan biltzeko.

Bi inbertsio mota hauek bereizten dira: Nafarroako kontratu publikoei buruzko legee jarraikiz egindako larrialdiko kontratazioen bidez egindakoak, eta horrela kontratatu ez, baina Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunaren iritziz beharrezkoak direnak larrialdiko kontratazio bidez egindakoak modu egokian osatzeko.

8. Kontratuen lizitazio faseetan "hobekuntzak" sartzek gorabeherak eragin zituen aurreko planean, eta foru lege honek galarazi egin nahi ditu, halakoak egitea argi eta berariaz debekatuz.

Ildo horretan, proiektuen aldaketen gaineko kontrol administratiboa ezartzen da, plan mota honetan estreinakoz.

Nolanahi ere, interesgarria da kontratazio publikoak politika sozialerako tresna gisa dituen auke-rez baliatzea. Ideia horretan oinarrituta, exijentzia bat ezarri da, inbertsioa egiteko behar diren lanaldi osoko kontratazio berri, baja eta ordezkapen guztien herena gutxienez gizarteratzeko gutxieneko errenta jasotzen dutenekin betetzekoa alegia.

9. Toki Inbertsioen Planetik kanpo uzteko prozedura arautzeko irizpideak justizia eta segurtasun juridikoa dira. Foru lege honetan xedatutakoak ekartzen dituen betebeharrak eta baldintzak betetzen ez badira, ez da beti jasotako zenbateko osoa itzuli beharko. Itzulketa hori partziala izan daiteke obraren zati bat behintzat behar bezala justifikatu, eta aurreikusitako erabilera publikorako baliatzeko moduan baldin badago.

Ildo horretan berean, teknikoki ondoz ondoko faseetan egin daitezkeen inbertsioen kasuan, zati-ka sartzeko aukera ere aurreikusten da.

10. Libreki erabaki beharrekoen atalari arreta berezia eman behar zaio; populazioaren arabera banatuta dago, III. eranskinean aurreikusitakoari jarraikiz .

Haren esparru materiala oso zabala da. Udal edo kontzeju onuradun bakoitzak gastuen aurrekontuko sailkapen ekonomikoaren 6. kapituluan kontabilizatzen ahal diren inbertsioetarako ezartzen dituen jarduketak sartzten dira bertan, edo aurrekontu izaerako finantza pasiboen amortizazio aurreratua egiteko erabiltzen dituenak, diruzaintzako gerakin negatiboa behin finantzatuta dagoenean.

Helburu horretarako ezarri den diru-kopurua nahiko handia da, horrela toki entitateek aukera gehiago izan dezaten eraginkortasunez erantzuteko haien herrien beharrei eta gogoei, aurrekontu murrizketak dauden garaietan estimatzekoa baita hala izatea. Lehen aipatu bezala, lurralde oreka berreskuratzeko helburuarekin bat, 3.000 biztanletik beherako herrietan azpiegitura eta ekipamendu beharrei erantzutea saritzen da bereziki.

Haren tramitazioa oso arina da. Horrela, beste neurri batzuen artean, ofiziozko prozedurak aurreikusten dira ordainketak egiteko, bai eta egokitasun txostenak ematea baiezeko isiltasunaren sistema erabiliz.

11. Laburbilduz, beharrezkotzat jotzen da Toki Inbertsioen Plan berri bat aktibatzea, arina eta eraginkorra, Foru Komunitate osoan derrigorrezko

udal zerbitzuen gutxieneko estaldura maila emateko ez ezik, toki ekipamenduak eta zerbitzuak izateari dagokionez dauden lurralde desorekak zuzentzeko ere; hori guztia Nafarroako toki administrazioarentzat finantzaketa eredu egonkor berria definitzeko lanak egin bitartean.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana da.

2. Toki Inbertsioen Plana osatzen duten jarduketan helburua da aldi horretan egin beharreko jarduketak zehaztea, azpiegiturak eta ekipamenduak ezarri, hobetu eta berritzekoak, ondotik azaltzen diren ataletan banatuta.

A) Inbertsioen Programak.

B) Toki Programazioa.

C) Libreki erabaki beharrekoak.

2. artikulua. Toki entitateen parte-hartzea.

Nafarroako toki entitateek Toki Araubideko Foru Batzordearen bitartez hartuko dute parte toki inbertsioen planaren jarraipenean eta kudeaketaren kontrolean.

3. artikulua. Toki Inbertsioen Planaren aurrekontu tratamendua.

1. Toki Inbertsioen Planerako ekarpenak, Nafarroako aurrekontu orokorretan kapital transferentzia gisa jasotzen direnak, urte anitzekoak izanen dira, eta hasiera batean, foru lege honen I. eranskineko taulan zehazten direnak izanen dira, eta ekitaldi bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan dagokien programan jasota egonen dira.

2. 2017-2019 aldiko ekitaldietako bakoitzean, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak gero-ko ekitaldien kargurako gastua baimentzen eta konprometitzen ahalko du, finkatutako urteko gehieneko diru-mugak eta artikulua honen 5. idatzatian aurreikusitako gehitzeetatik etortzen direnak gainditu gabe.

3. Konpromiso ekonomikoak kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoari edo ekonomikoari egotziko zaizkie, kontuan hartuta Toki Inbertsioen Planaren gaineko araudia aplikatuzetik sortzen diren ordainketen aurreikuspena eta aurreko idatz-zatiaren arabera ezarritako aurrekontu banaketa; urte anitzeko gastuaren izaera izanen dute ondorio guztietarako.

4. Toki Inbertsioen Planeko kontu-sailen arteko doikuntzak egiten ahalko dira programaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen direnean. Era berean, plan horretako kontu-sailetan sartutako kredituen arteko doikuntzak ere egiten ahalko dira.

5. Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kapital transferentzietako diru baliabideak, aurrekontuan erabili gabekoak, jatorria ekitaldi itxietako ekonomietan dutenak eta Toki Inbertsioen Planaren araudia aplikatuta itzulitako diru kopuruak funts horri atxikitako diruzaintzako gerakintzat hartuko dira. Gerakin hori ekitaldi bakoitzeko aurrekontu kredituarekin batera atxikitzen ahalko da, aurrekontuaren betetze mailaren arabera. Halaber, hurrengo ekitaldiei ere atxikitzen ahalko zaie, funtsaren zenbateko osoa gainditu gabe.

4. artikulua. Toki Inbertsioen Planaren ekarpenen banaketa.

1. Toki Inbertsioen Planaren atal bakoitzerako onetsi diren funtsen banaketa, hasiera batean, I. eranskinean aipatzen diren mugen eta jarduketa moten arabera egingen da.

Halere, foru lege honen 10. eta 15. artikuluetan aipatzen diren ebazpenak eman ondoren, zuzkidurak berriz atxikiko zaizkie Inbertsioen Programaren eta Toki Programazioaren ataletako kontzeptuei.

2. Hasiera batean, finantzaketa jaso dezaketen inbertsioen zerrendak onetsi arte, Inbertsioen Programetarako zenbateko osoaren 100eko 5, gehienez, gordetzen ahalko da aurreikusitako kostuen balizko gehikuntzei aurre egiteko, eta Toki Programazioaren atalerako zenbateko osoaren beste ehuneko 5, berriz, gehieneko diru-ekarpena finkatzean izan daitekeen 100eko 10eko gehieneko igoerari aurre egiteko. Azken igoera hori baloratutako memorien zenbatekoaren gainean aplikatzen ahalko da, soilik.

3. Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren ataletarako zenbateko osoaren 100eko 5, gehienez ere, gordetzen ahalko da larrialdiko eskaeraren kalifikazioa dutenei eta haien inbertsio osagarriei aurre egiteko, edo salbuespeneko araubideko finantzabidea behar duten inbertsioei aurre egiteko.

4. Konprometitu gabeko diru kopuruak eta 28. artikuluan xedatutakoarekin bat askatutakoak beste jarduketa batzuk finantzatzeko erabiliko dira, aurrekontuko mugen barruan, erreserban utzitako inbertsio eskaeren behin betiko zerrendan ezarritako lehentasun ordena kontuan hartuta.

5. artikulua. Bateragarritasuna.

1. Toki Inbertsioen Plan honen ekarpenak bateragarriak izanen dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik etorritako laguntzekin.

2. Toki Inbertsioen Planaren kargurako ekarpena, beste erakunde publiko edo pribatuetatik datozen laguntzei gehituta, inbertsioaren kostu osoa baino handiagoa bada, lehenbizikoa murriztuko da, kostu horrekin bat etorri arte.

II. KAPITULUA

Inbertsioen programak eta toki programazioa

Lehen atala Inbertsioen programak

6. artikulua. Inbertsio motak.

Toki Inbertsioen Planaren atal honetan honakoak daude:

A) Uraren goi horniduraren arloko inbertsio programa bat.

B) Hiri hondakinen tratamenduaren arloko inbertsio programa bat.

C) Aurreko programei dagozkien azterlanak eta proiektuak, mota guztietako gastuak barne, horiek garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu, inbertsio eta jarduketekin lotuta. Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak hartuko du bere gain kudeaketa, ente instrumental bati enkargua eginez edo kontratazio bidez kontratu publikoei buruzko foru legeekin bat.

D) Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko Inbertsioen Programa bat.

7. artikulua. Inbertsio Programen izaera.

Ur horniduraren, hiri hondakinen tratamendua eta belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloetako Inbertsioen Programak programaziorako tresnak dira, azpiegiturak ezarri, hobetu eta berritzeko jarduketan zerrendak biltzen dituztenak, II. eranskinean finkatutako ordenaren arabera lehenetsita.

8. artikulua. Finantza daitezkeen obrak.

1. Ur horniduraren arloko Inbertsioen Programan finantza daitezkeen obrak honakoak dira: ur hartuneak eta erregulazioa, hodiak, tratamendu eta potabilizazio plantak, teleagintea eta telekontrola, ponpaketa-estazioak eta biltegiak, denak herrien hornidurarako baldin badira, salbu eta bakartutako industria edo abeltzaintzako ustiate-

gietako ur kontsumorako instalazioak. Ezin dira finantzatu ustiapen eta mantentze lanetako gastuak.

Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko kutxetak eta hodiak finantzatzen ahalko dira, Nafarroako Banda Zabalaran Planean aurreikusitakoekin bat datozen tarteetan.

2. Hiri hondakinen tratamenduaren arloko Inbertsioen Programan finantza daitezkeen obrak honako xedeak dituztenak dira: bolumen handiak, ontziak, plastikoa, papera, kartoia, beira, zura, metalak, material inerteak eta legez hondakintzat hartzen diren beste guztiak deuseztatu, berrerabili, berreskuratu eta birziklatzea, bai eta gai organikoak balorizatzea konpost bidez, biometanizazio bidez edo legez onartuta dagoen beste edozein teknika erabiliz. Era berean, transferentzia plantei

eta garbiguneei dagozkien jarduketak ere sartzen dira.

3. Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko Inbertsioen Programan finantzatzen ahal diren obrak hauek dira: ingeniariaritzaz, zibila, kondukzioak edo zuntz iluna paratzea, kanalizazioak, kutxetak, hodiak, zuntz optikoko kableak jartzea, etxolak, dorreak, banaketa guneak eta antzeko elementu fisikoak barne, amaierako bezeroarentzako sarbide saretik edo azken miliatik hasita operadoreei handizkako sarbidea emateko adina gaitasun duen sare nagusitik gertuen dagoen tarteko konzentrazio edo agregazio puntura bitarte.

9. artikulua. Ekarpeneren portzentajeak.

Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoaren gaineko gehieneko diru-ekarpeneren portzentajeak, BEZa kenduta, hauek dira:

	Ekarpeneren portzentajea
Uraren goi hornidurari dagozkion jarduketak	%80
Hondakinen tratamenduari dagozkion jarduketak	%80
	% 95, jasandako BEZaren kenkaria egiteko eskubiderik sortzen ez badute
Banda zabaleko azpiegitura pasiboei dagozkien jarduketak	%80

10. artikulua. Planean sartzeko eta gehieneko diru-ekarpena finkatzeko prozedura.

1. Foru lege honek indarra hartzen duen egunetik hilabeteko epean, II. eranskineko toki entitateek adierazi beharko dute jarduketaren kudeaketa integrala bere gain hartzeko borondatea edo, bestela, eskatu beharko dute, IV. eranskineko 1. ataleko A) letran aurreikusitakoarekin bat, lankidetzara araubidean gauzatuko dutela beste toki entitate batekin edo batzuekin eta/edo Nafarroako Gobernuarekin, eta berauek ente instrumentalen esku utz dezake obraren betetzea. Lankidetzara hitzarmenak foru agindu bidez arautzen ahalko dira.

Horrekin batera, toki entitateko alkatetzaren edo burutzaren ebazpen bat aurkeztu beharko da, kontu-hartzaileak behar bezala justifikatua, toki inbertsioen plan honek bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko konpromisoarekin, IV. eranskineko 1. ataleko B) letran aurreikusitakoarekin bat.

Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko Inbertsioen Programako inbertsioen kasuan, hilabeteko epe hori hasiko da zenbatzen II. eranskineko 3. atalen sartutako inbertsio bakoitzaren susta-

tzailea(k) nor den edo diren zehazteko Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bat jakinarazten duenetik aurrera.

2. Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez onetsiko dira Toki Inbertsioen Planean sartzen ahal diren inbertsioen zerrendak; ebazpen horietan honakoak jasoko dira:

A) Aurrekontuan dagoen diruaren kargura finantzatzen ahal diren inbertsioen zerrenda.

B) Erreserban dauden inbertsioen zerrenda.

C) Onartu ezin diren inbertsioen zerrenda, foru lege honetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Zerrenda horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren ebazpenak argitaratu eta lau hilabeteko epean, A) letrak aipatzen dituen toki entitateek IV. eranskineko 4. atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. 2019an egin beharreko inbertsioen kasuan, dokumentazio hori 2018ko lehen hiruhilekoan aurkeztu beharko da.

4. Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunek txosten lotesleak eginen dituzte, eduki tekniko, ekonomiko eta juridikokoak, proiektua eta finantza plana foru lege honetan xedatutakoarekin bat datozen erabakitzeko. Txosten guztiak aldekoak baldin badira, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez, jarduketa behin betiko sartuko da Toki Inbertsioen Planean eta gehieneko diru-ekarpena finkatuko da.

Bigarren atala **Toki programazioa**

11. artikulua. Inbertsio motak.

Toki Programazioaren atalean honako inbertsio hauek daude sartuta:

- A) Hornidura, saneamendu eta euri-uretarako toki sareak.
- B) Zoladurak sareekin batera.
- C) Zoladurak sarerik gabe.
- D) Kaleko argiak.
- E) Udal ekipamenduak eraikuntzako araudi teknikora egokitzea.
- F) Bizitoki iraunkorretara doazen bideak eta biziguneen artekoak.

12. artikulua. Finantza daitezkeen obrak.

Toki Programazioaren atalean, finantzatzen ahal diren obrak honakoak dira:

A) Ur edangarria banatzeko sareak berritzea, erregulazio biltegietatik etxeetako harguneetara, eta ur beltzen saneamendu sareak, etxeetako harguneetatik araztegiaren aurreko hustubide orokorrera, ur beltzak eta euri-urak batera daramatzaten sareen ordezkariak bereizten dituztenak jartzea, herrigunean sortutako euri-uretarako sareak berri-itu edo paratzea, eta kontagailuak eta/edo sektori-zazio gailuak jartzea, sareen egoeraren diagnostikoa egin eta haien eragimena areagotzeko erabiltzen direnak, hori guztia eraikinek sendotutako herrigunearen barnean, betiere inguruabar hauetako bat tartean denean:

- A.1) Osasun arrisku edo arazo larriak.
- A.2) Gehiegizko emariak hondakin uren tratamendu sistemetan eragindako disfunczioak.
- A.3) Sarean ihes ugari izatea.
- A.4) Uholde arriskuak, euri-uretarako sareen gaitasun faltak eragindakoak.
- A.5) 40 urteko sareak edo zaharragoak.

A.6) Ur presio desegokia kontsumo guneetan.

A.7) Egungo sareen egoeraren diagnosi egokia egiteko gai diren instalaziorik ez izatea.

B) Kaleei zoladura ematea eraikinek sendotutako hiriguneetan, etxeetako telekomunikazioen, energia elektrikoaren eta kaleko argien hornidurari dagozkion lur azpiko kanalizazioetarako obra zibila, eta eustormak, inguruabar hauetako bat tartean denean:

B.1) Fatxaden arteko edo lerro eraikigarrien arteko zabalera 8 metrokoa edo txikiagoa duten bideak, zoladurarik gabekoak edo zoladura egoera txarrean edo eskasean dutenak, zoladurarekin batera finantza jaso dezakeen hornidura eta/edo saneamendu sareak berritzeko lan bat gutxienez, egiten denean.

B.2) Fatxaden arteko edo lerro eraikigarrien arteko zabalera 8 metrokoa baino handiagoa eta 15 metrokoa edo txikiagoa duten bideak, zoladurarik gabekoak edo zoladura egoera txarrean edo eskasean dutenak, zoladurarekin batera finantza jaso dezakeen hornidura eta/edo saneamendu sareak berritzeko lan bat gutxienez, eta etxeko telekomunikazioen, energia elektrikoaren eta kaleko argien hornidurari dagozkion lur azpiko kanalizazioen obrak egiten direnean.

C) Bide publikoak zolatzeko lanak eraikuntzak eta eustormek sendotutako hiriguneetan, inguruabar hauek tartean direnean:

C.1) Pertsona eta/edo ibilgailu ugariaren trafikoa duten bideak, bertako fatxaden arteko edo lerro eraikigarrien arteko batez besteko zabalera 8 metrokoa edo txikiagoa denean, haien zorua egoera txarrean dagoenean eta 1998tik aurrera egin edo berritutako hornidura eta saneamendu sareak baldin badituzte.

D) Kaleko argien instalazioak berritzea, hirigune sendotuaren barnean, energia elektrikoaren kontsumoa gutxitzeko egungo argi-ekipoen ordezkari errendimendu handiagoko argiak eta/edo erregulazio eta kontrolerako ekipo elektronikoak paratuz, betiere hiru inguruabar hauek aldi berean suertatzen badira:

D.1) Egungo instalazioak egokitu beharra kanpoko argi instalazioetako eragimen energetikoari buruzko araudi indardunera eta behe tentsioko erregelamenduzko araudi elektroteknikora.

D.2) Energia elektrikoaren kontsumoa %30 edo gehiago murriztea, proiektuan aurreikusia.

D.3) Proiektuko argietarako A edo B kalifikazio energetikoa.

E) Lehendik dauden udal ekipamenduak, erabilerara administratiboa, edo hezkuntza, kirol, kultura arlokoak dituztenak, bai eta erabilerara sozialeko eraikinak ere, hala nola eguneko zentroak eta mendekotasuna edo desgaitasuna dutenei arreta ematekoak, eraikuntzako araudi teknikora egokitze behar diren jarduketak (eragimen energetikoari, suteen kasuan jendez husteari, irisgarritasunari, erabiltzeko segurtasunari, osasungarritasunari eta legionelosiaren prebentzioari dagokienez), atal hauetako batean sar daitezkeenak:

E.1) Ingurukari termikoaren hobekuntza, energia beharrak nabarmen murriztuko dituenak.

E.2) Ingurukariaren hobekuntza, eraikinaren barrenean babes emanen duena hezetasunari aurre egiteko.

E.3) Eraikina husteko ibilbideak egokitzea sute kasuetarako.

E.4) Irisgarritasuna hobetzea eta ibilbide irisgarriak egokitzea solairuen barrenean eta eraikineko maila desberdinen artean, arrapalak eta igogailuak jartzea barne.

E.5) Erorketa arriskua gutxitzea, koskak murriztuz, azalera irristakorrak kenduz edo beste-lako babes sistemak ezarriz.

E.6) Legionelosiaren prebentziorako sistemak ezartzea hozte dorreetan eta gizakien kontsumorako ur hornidurarako barne instalazioetan.

F) Zoladura berritu, egokitu edo indartzea bizi-toki iraunkorretarako bideetan, ibilgailuetarako beste sarbide bideragarriak ez dagoenean, eta bi herriguneren arteko bideak, errepidez egin beharreko distantzia % 40 baino gehiago gutxitzen dutenak, euri-urak ateratzeko jarduketak, zeharkako drainatze lanak, hormigoizko zorrotak eta arekak, luizien konponketa eta lurak finkatzea barne, inguruabar hauetako bat suertatzen denean:

F.1) Pertsonentzat edo ondasunetarako funtsezko arriskuak egotea.

F.2) Zoruaren egoera, zerbitzu publikoetako ibilgailuak sartzeko zailtasunak eragiten dituenak.

F.3) Zoru edo oinarri pikortsu trinkoturik ez izatea, edo zoruaren egoera txarrean egotea, ibilgailuen trafikorako oztopoa denean.

F.4) Euri-urak ateratzeko azpiegiturarik ez izatea edo egoera txarrean egotea.

13. artikulua. Inbertsioak hautatzeko irizpideak.

1. Toki Programazioaren atalean sartu beharreko inbertsioetarako proposamenak hautatzeko, artikuluko honetan xedatutakoari jarraikiz lortzen duten puntuazio ordena erabiliko da. Gehienez ere 25 puntu emanen zaizkio jasotako eskaera bakoitzari, inbertsioaren beharraren arabera egindako sailkapen batean, parametro hauek kontuan hartuz:

A) Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretarako toki sareak.

A.1) Osasun arrisku edo arazo larriak: gehienez ere 10 puntu.

A.2) Gehiegizko emariak hondakin uren tratamendu sistemetan eragindako disfunczioak: gehienez ere 6 puntu.

A.3) Sarean ihes ugari izatea: gehienez ere 4 puntu.

A.4) Uholde arriskuak, euri-uretarako sareen gaitasun faltak eragindakoak: gehienez ere 2 puntu.

A.5) 40 urteko sareak edo zaharragoak: gehienez ere puntu 1.

A.6) Ur presio desegokia kontsumo guneetan: gehienez ere puntu 1.

A.7) Egungo sareen egoeraren diagnosi egokia egiteko gai diren instalaziorik ez izatea: gehienez ere puntu 1.

B) Zoladurak eta sareak.

12 B) artikuluko irizpideen arabera finantzaketa izan dezaketen zoladura lanei haiekin lotutako sareetako inbertsioari emandako puntuazio bera emanen zaie atal honetan.

C) Zoladurak sarerik gabe.

C.1) Egoera txarrean dagoen zoru, ibilgailuen eta/edo oinezkoen zirkulaziorako arazoak eragiten dituenak: gehienez ere 10 puntu.

C.2) Funtsezko arriskuak pertsonentzat edo ondasunetarako: gehienez ere 8 puntu.

C.3) Egoera txarrean dagoen zoru, zerbitzu publikoen ibilgailuak sartzeko arazoak eragiten dituenak: gehienez ere 7 puntu.

D) Kaleko argiak.

D.1) Arrisku larriak pertsonentzat edo ondasunetarako: gehienez ere 10 puntu.

D.2) Aurreikusitako energia aurrezpena: gehienez ere 9 puntu.

D.3) Instalazioaren antzinatasuna: gehienez ere 6 puntu

E) Udal ekipamenduak eraikuntzako araudi teknikora egokitzea.

E.1) Eraikuntzako ez betetzeen edo akatsen larritasuna edo horiek eragindako balizko arrisku mailena: gehienez ere 20 puntu.

E.2) Jarduketaren onuradun izan daitezkeen erabiltzaileen kopurua: gehienez ere 5 puntu.

F) Bizitoki iraunkorretara doazen bideak eta biziguneen artekoak.

F.1) Funtsezko arriskuak pertsonentzat edo ondasunetarako: gehienez ere 9 puntu.

F.2) Egoera txarrean dagoen zorua, zerbitzu publikoen ibilgailuak sartzeko arazoak eragiten dituen: gehienez ere 7 puntu.

F.3) Zoru edo oinarri pikortsu trinkoturik ez izatea, edo zorua egoera txarrean egotea, ibilgailuen trafikorako oztopoa denean: gehienez ere 5 puntu.

F.4) Jarduketaren onuradun izan daitezkeen erabiltzaileen kopurua: gehienez ere 3 puntu.

F.5) Euri-urak ateratzeko azpiegitarik ez izateak edo egoera txarrean egoteak eragindako arriskuak: gehienez ere puntu 1.

Inbertsiorako beharraren mailaren arabera emandako balorazioa ehuneko 5 handituko da, ezarritako gehienekoa gainditu gabe, lanak hezkuntza zerbitzuetarako eta/edo mendekotasunari buruzko legearen babesean dauden pertsonentzat, eta desgaitasuna edo mugitzeko arazoak dituztenentzat beharrezkotzat jotzen direnean.

2. 3 puntu emanen dira gehienez ere, toki entitate bakoitzean Toki Inbertsioen aurreko Planean egindako inbertsioetarako biztanle bakoitzeko ekarpenaren alderantzizko proportzioan.

3. 2 puntu emanen dira gehienez ere, inbertsio mota bakoitzerako (parekatzeko modukoa bada antzeko ezaugarrietan oinarrituta) kalkulaturako batez bestekoa baino txikiagoak diren amortizazio eta/edo mantentze kostuak dakartzaten inbertsioen kasuan. Toki entitateak kalkulurik aurkeztu ezean ez da inolako puntuaziorik emanen kontzeptu honetan.

14. artikulua. Diru-ekarpenaren portzentajeak, kontzeptuak eta gehieneko kopuruak.

1. Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoaren gaineko gehieneko diru-ekarpenaren portzentajeak, BEZa kenduta, hauek dira:

	Jasandako BEZaren kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten inbertsioak	Jasandako BEZaren kenkaria egiteko eskubidea sortzen ez duten inbertsioak
Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretarako sareak	%70	%85
Zoladurak eta sareak	%70	%85
Zoladurak sarerik gabe	%70	%85
Kaleko argiak	%50	%60
Udal azpiegiturak eta ekipamenduak araudira egokitzea	%60	%70
Bizitoki iraunkorretara doazen bideak eta biziguneen artekoak	%70	%85

2. Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoan sartu beharreko kontzeptuek eta ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoek IV. eranskinean xedatutakoarekin bat etorri beharko dute.

15. artikulua. Planean sartzeko eta gehieneko diru-ekarpena finkatzeko prozedura.

1. Toki Inbertsioen Planeko Toki Programazioaren atalean lanak sartzeko eskabideak bi hilabete epean aurkeztu beharko dira, foru lege honek indarra hartzen duen egunetik aurrera kontatuta, administrazio prozedura erkidearen gaineko arau-

dian aurreikusitako moduan, eta IV. eranskineko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren agiriak erantsita izan beharko dituzte.

2. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, inbertsioak hautatu eta lehenetsi eginen dira 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez onetsiko da Toki Inbertsioen Planean sartzeko ahal diren inbertsioen behin-behineko zerrenda; honakoak jasoko dira bertan:

A) Aurrekontuan dagoen diruaren kargura finantzatzen ahal diren inbertsioen behin-behineko zerrenda.

B) Erreserban dauden inbertsio eskaeren behin-behineko zerrenda.

C) Onartu ezin diren eskaeren behin-behineko zerrenda, foru lege honetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Inbertsioen behin-behineko zerrenda hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epe bat izanen da alegazioak aurkezteko.

3. Alegazioak ebatzi ondoren, Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez onetsiko da Toki Inbertsioen Planean sartzen ahal diren inbertsioen behin betiko zerrenda; honakoak jasoko dira bertan:

A) Aurrekontuan dagoen diruaren kargura finantzatzen ahal diren inbertsioen behin betiko zerrenda.

B) Erreserban dauden inbertsio eskaeren behin betiko zerrenda.

C) Onartu ezin diren eskaeren behin betiko zerrenda, foru lege honetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Inbertsioen behin betiko zerrenda hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Aurreko idatz-zatian aipatzen den ebazpena argitaratu eta hiru hilabeteko epean, A) letran aipatzen diren toki entitateek IV. eranskineko 4. atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. 2019an egin beharreko inbertsioen kasuan, dokumentazio hori 2018ko lehen hiruhilekoan aurkeztu beharko da.

5. Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunek txosten lotesleak eginen dituzte, eduki tekniko, ekonomiko eta juridikokoak, proiektua eta finantza plana foru lege honetan xedatutakoarekin bat datozen erabakitzeko. Txosten guztiak aldekoak baldin badira, Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez, jarduketa Toki Inbertsioen Planean sartu, eta gehieneko diru-ekarpena finkatuko da.

Hirugarren atala

Bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa

16. artikulua. Bideragarritasun ekonomikoaren gaineko txostenak.

1. Inbertsioaren bideragarritasun ekonomikoa Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak aztertuko du, toki entitateak ordain-

du beharreko zatiari aplikatzen ahal zaizkion bitarteko eta konpromisoetan oinarrituta, hala nola diruzaintzako gerakinak, ondare besterentzeen emaitzak, epe luzeko kreditu eragiketak eta beste-lako aurrekontu zuzkidurak, urte anitzekoak barne.

2. Libreki erabaki beharreko jarduketetarako ez da bideragarritasun ekonomikoaren txostenik beharko, ezta larrialdiko inbertsioetarako ere.

Toki Inbertsioen aurreko Planaren indarraldian emandako hasiera baimenen babesean hasi edo amaitutako inbertsioek ez dute bideragarritasun ekonomikoa berriz frogatu beharko.

3. Inbertsioaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioak ebaluazio negatiboa jasotzen badu, toki entitateak hilabeteko epea izanen du, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, erabaki hauetako bat hartu eta Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko:

A) Inbertsioa bere finantza ahalmenera egokitzekoa.

B) Finantzaketarako formula alternatibo bat proposatzekoa.

C) Foru lege honen hurrengo artikuluan jasotzen den salbuespeneko araubidean sartzea eskatzekoa.

Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunaren iritziz toki entitateak proposatutako konponbide alternatiboak akatsak baditu, azken epe bat emanen du zuzenketa egiteko, hamar egun balioduneko. Epe horretan zuzendu ezean, inbertsioa bideraezina dela ulertuko da.

17. artikulua. Salbuespeneko araubidea.

1. Salbuespen gisa, toki entitateak hala eskatuta, ekarpenaren kopurua handitzen ahalko da, inbertsioen zenbateko lagungarriaren ehuneko ehun gehienez ere, uraren goi hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko Inbertsioen Programei eta Toki Programazioari dagozkienean, Toki Administrazio Zuzendari Nagusiko zerbitzu eskudunak egiaztatzen badu toki entitateak ez duela aski ahalmen ekonomikorik eta finantzariorik inbertsioa zenbateko horri dagokion kopuruan gauzatzea bideragarria izan dadin.

2. Salbuespeneko araubide horretan sartzeko, toki entitatearen osoko bilkurak, juntak edo batzarrak hartu beharko du erabakia, bertan ondoko konpromiso hauek jasota:

A) Salbuespeneko araubidean sartutakoez beste inbertsiorik ez egitea horiek betetzeko epean, eta kreditu edo finantza zama berririk ez hitzartzea ere, non Toki Administrazio

Zuzendaritza Nagusiak berriazko baimena ematen ez duen, salbuespeneko arrazoiengatik edo etorkizunean defizitik ez duela eraginen bermatuta egoteagatik.

B) Baliabide berekiak atxikitzea salbuespeneko araubidean sartzeko aurreikusitako moduan.

C) Aurreko konpromisoez gain, obra egiten ari den epean eta amaitu ondoko lau urteetan, udalek gutxieneko 0,30 zerga tasa onetsi eta mantendu beharko dute lur ondasunen gaineko kontribuziorako, eta haren balorazio txostena eguneratu araudi indardunarekin bat. Lur-ondasunen gaineko kontribuzioaren zerga-oinarrian ez da murrizketarik onetsiko ezta aplikatuko ere balorazio txostena eguneratzeak katastroko balorazioa igotzearen ondorioz.

D) A) eta B) letretako konpromisoez gain, kontzejuek kontribuzio bereziak edo bizilagunen ekarpenak onetsi beharko dituzte, artikuluko honen 4. idatz-zatian aipatzen den foru aginduaren arabera kalkulaturako oinarri baten gainean lur-ondasunen gaineko kontribuziorako 0,30eko gutxieneko zerga-tasa aplikatzeak sortutako zenbatekoa adinakoa. Eskuordeturik egindako inbertsioen kasuan, kontzejuek ados jarri beharko dute udalarekin, eta akordio baten bidez udalak konpromisoa hartuko du behar den kopurua jartzeko, kontzejuarentzat bideragarria izan dadin inbertsioa egitea.

Konpromiso hori onartzeko baldintza izanen da udalarentzat ekonomikoki bideragarria izatea ekarpena egitea. Bideragarria ez bada, udaletarako salbuespeneko araubide honetan araututakoa aplikatuko da.

3. Toki entitatearen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, aurreko idatz-zatian xedatutakoarekin bat onartutako konpromisoek diru-sarreretan eragin lezaketen igoera hartuko da aintzat.

4. Salbuespeneko araubidean sartzeko prozedura, eta aplikatzeko kalkuluak eta neurriak foru agindu bidez garatuko dira.

5. Mankomunitate batean bideragarritasunik ez badago inbertsio bat finantzatzeko, inbertsioa haren finantza ahalmenera egokituko da, haren organo kudeatzaileek hartutako erabaki baten bidez. Inbertsioa egokitzerik ez badago, eta entitateko kide diren udalen ekarpenarekin finantzatzea erabakitzen bada, bilatuko da ea bideragarria zaien dagokien zatia finantzatzea, eta bideragarria ez bada, salbuespeneko araubidean sartzeko ahal-ko dira aurreko 2. idatz-zatian araututako moduan.

Laugarren atala **Guztientzako prozedura arauak**

18. artikulua. Inbertsioek bete beharreko baldintzak.

1. Inbertsioak ezin izanen dira gehieneko diru-ekarpena finkatu aurretik hasi, salbuespen hauekin:

A) Toki Inbertsioen aurreko Planaren indarraldian emandako hasiera baimenen babesean hasi edo amaitutako inbertsioak.

B) Larrialdiko inbertsioaren kalifikazioa dutenak hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Inbertsioek toki entitate eskatzaileak emandako zerbitzuen gainekoak izan beharko dute, salbu eta foru lege honen 6. artikuluko D) letran jasotakoak, berriazko araudi sektoriala izanen baitute.

Eskuordetzeen kasuan, hala dela frogatu beharko du entitate eskuordetuak edo eskuordetze emaileak, haietako bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak adierazita. Eskuordetzeak toki araubideari buruzko oinarritzko legeetan xedatutakoarekin bat etorri beharko du.

Kontzejuek bere gain hartutako obrak sartzeko ahal-ko dira planean Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 39. artikuluko 2. idatz-zatian xedatzen denaren ondorioz. Kasu horretan, kontzejuak adierazpen bat eskatu beharko dio bere udalari, obra edo zerbitzu horiek egin edo ematen dituen adierazteko, eta eskabidearekin batera aurkeztu. Kontzejuak 10 egun baliorduneko epean erantzunik jasotzen ez badu, ulertuko da udalak ez duela kasuko lan edo zerbitzu hori egiten edo ematen.

3. Toki Inbertsioen Plan honetan ez da sartuko 15 urte baino gutxiagoko azpiegiturak konpondu edo berritzeko lanik.

4. Toki Inbertsioen Plan honetan ezin izanen da sartu aplikatzeko den hirigintza araudiaren arabera jabeek edo sustatzaileek ordaindu beharreko urbanizazio lanik.

5. Proiektuaren prestaketa eta obra gauzatzea batera kontratatzen direnean ez da inbertsioa onartuko. Administrazioz eta/edo baliabide berekiekin egin beharreko inbertsioak ere ez dira onartuko.

19. artikulua. Larrialdietako prozedura.

1. Toki Inbertsioen Planean sartzeko ahal-ko dira foru lege honen 6. eta 11. artikuluetan aurreikusitako azpiegiturak eta ekipamenduak berehalakoan lehengoratzeko beharrezkoak diren jarduketak,

salbu eta banda zabaleko azpiegituren arloko Inbertsioen Programan sartutakoak, hondamen-diak tartean direla egin beharrekoak, edo pertsonen nahiz ondasunen segurtasunerako arriskua dagoenean.

Prozedura horren bidez, sartzen ahalko dira bai Nafarroako kontratu publikoei buruzko legeekin bat larrialdiko kontratazioen bidez egindako inbertsioak, bai izaera hori izan gabe kontratatutakoak, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko organo eskudunak beharrezkotzat jotzen baditu larrialdiko kontratazioen bidez egindakoak behar bezala osatzeko.

2. Horretarako, toki entitateak inbertsioari larrialdiko inbertsioaren kalifikazioa emateko eskaera aurkeztu beharko du, gertatu eta hamar egun balioduneko epean gehienez ere, izaera hori ematea ahalbidetzen duten inguruabarraren frogagiri bat eta gauzatu beharreko jarduketan hasierako aurreikuspen bat erantsita.

3. Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak txosten loteslea eginen du artikulu honen ondorioetarako lana larrialdikotzat kalifikatzea onartu edo ukatzeaz.

Era berean, zerbitzu horrek zehaztuko du zein diren beharrezkotzat jotzen diren beste inbertsio osagarriak, kasua bada. Horiei buruzko epeak eta dokumentazioa kasuan kasuko inbertsiorako oro har ezarritakoak izanen dira.

4. Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak inbertsioa larrialdikotzat jotzeko emandako ebazpen horretan berean lanak esleitu eta/edo gauzatzeko gehieneko epeak ere zehazten ahalko dira.

Zerbitzu eskudunaren iritziz larrialdiko kontratazioen bidez egindako lanak modu egokian osatzeko beharrezkoak diren beste inbertsio horiek sartzeko prozedurari foru lege honetan inbertsio mota horretarako aurreikusten diren baldintza juridiko, tekniko eta ekonomikoak aplikatuko zaizkio, salbu eta obra hasteko epeari dagokiona, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez ezarriko baita.

20. artikulua. Klausula soziala.

Toki Inbertsioen Plan honetan sartutako lanak esleitzeko toki entitateek onesten dituzten agiri guztietan sartu beharko da, gauzatzeko baldintza berezi gisa, beharkizun hau: inbertsioa egiteko beharrezkoak diren lanaldi osoko kontratazio berri, baja eta ordezkapen guztien herena gutxieneko gizarteratze-errenta jasotzen dutenekin beteko dela.

21. artikulua. Proiektuak hobetzea eta aldatzea.

1. Inbertsioen xedeei ezin izanen zaie hobekuntzarik gehitu esleipen prozedura baten ondorioz.

2. Proiektuak gauzatzeko epeak eta haien baldintza teknikoak aldatzen ahalko dira ustekabe-ko beharreatatik, hobekuntza teknologikoengatik edo bestelako arrazoi objektiboengatik, betiere aldatzen ez badira eskaeraren xede den inbertsioaren ezaugarriak, eta horretarako ezartzen den gehieneko zenbateko lagungarria gainditu gabe. Ondorio horietarako, proiektuan espediente administratiboa behar duen edozein aldaketa egiteko, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio aurretik.

22. artikulua. Obren hasiera.

1. Toki Inbertsioen Planean sartutako obrak lau hilabeteko epean hasi beharko dira, gehieneko diru-ekarpena ezartzen duen ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita kontatuta.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa ez da aplikatuko Inbertsioen Programa hauei dagozkien obretan, partikularren gaineko ukipenak eragiten dituztenean, epea sei hilabetekoa izanen baita jakinarazpena egiten denetik: uraren goi hornidura, hiri hondakinen tratamendua, belaunaldi berriko banda zabaleko sarbide sareak zabaltzeko azpiegitura pasiboak.

3. Obra hasierako ordainketa egin behar den urtearen aurrekoan amaitzen badira artikulu honen 1. eta 2. idatz-zatietan aurreikusitako epeak, epe horiek otsailaren 1era bitarte luzatuko dira.

4. Obrak aurreko idatz-zatietan ezarritako epeetatik kanpo hasten badira, Toki Inbertsioen Planetik kanpo uzteko espedientea tramitatuko da, 27. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, salbu eta salbuespeneko kasu batean, alegia, baimen berezia ematen bazaie, interes publikoaren onerako obrak atzeratzeko arrazoiak daudelako –toki entitateak frogatutakoak–, edo partikularren gaineko ukipenak ekartzen dituztelako, baina betiere inbertsioaren erabilera eta xedea babestuz.

5. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, obren hasierako eguna zuinetaren aktan jasotakoa izanen da.

23. artikulua. Exekuzio epeak.

1. Plan honen kargurako zenbatekoak ordaintzearen ondorioetarako, inbertsioen exekuzio epeak gehieneko diru-ekarpena finkatzean zehaztuko dira, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagu-

siaren ebazpenaren bidez ezartzen den denbora-programazioarekin bat.

2. Salbuespen gisa, toki entitateak hala eskatzen badu, horretarako ezarritako epeak luzatzen ahalko dira Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez, inbertsioa planean sartu eta gerora sortutako arrazoiengatik inbertsioaren gauzatzea epean amaitzerik ez dagoela ikustean.

24. artikulua. Ordainketarako eskaerak, obra hasiera eta amaiera dela eta.

1. Ekarpenen onuradun diren toki entitateak beharturik daude inbertsioa ezarritako betebeharrak eta baldintzekin bat bete dela justifikatzera.

Kasuan kasuko ordainketak Toki Administrazio-ko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak txosten tekniko loteslea eman ondoren eginen dira, lana ikuskatu eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren.

2. Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren atalei dagozkien ekarpenen ordainketa honela eginen da:

- A) %40 obraren hasieran.
- B) %20 lanen erdiak eginak daudenean.
- C) Gainerakoa, lanak amaituta.

3. Obra hasierako ordainketa egiteko eskaera IV. eranskinen 5. ataleko A) letran eskatzen den dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.

4. Obraren erdia egin dagoenean ordainketa eskatzen bada, IV. eranskinen 5. ataleko B) letran aurreikusten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5. Obra amaierako ordainketarako eskaera, IV. eranskinen 5. ataleko C) letran eskatutako dokumentazioarekin batera, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, obrak xede duen erabilera publikorako entregatu daitekeela frogatzen duen harrera akta

egin eta biharamunetik kontaktzen hasita, enpresa kontratistaren adostasunik ez badago ere.

25. artikulua. Eskabideak eta agiriak zuzentzea.

1. Toki entitateek aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen foru lege honetan edo administrazio prozedura erkideari buruzko oinarriko legerian jasotako betebeharrak edo eskatutako dokumentazio osoa erantsirik ez badute, toki entitateari eskatuko zaio akatsa zuzendu edo aginduzko agiriak gehitzeko hamar egun balioduneko epean. Hala egin ezean, eskaera ezetsizat hartuko da, hurrengo idatz-zatian xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

2. Obra amaierako ordainketa eskaerak direnean, zuzentzeko errekerimenduari behar den moduan erantzuten ez bazaio, Toki Administrazio-ko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak ikuskatuko du egindako obra edo obra zatia, aurreikusitako erabilera publikorako erabil daitekeen edo ez zehazteko. Baiezkoan, obraren jabeak eta zuzendaritzak (gutxienez) izenpetutako obra ziurtapenen bidez, bai eta fakturak edo kasuko kopuruak ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztuz ere, Zerbitzuaren iritziz frogatuta dagoen kostuaren zatiari dagokion zenbatekoa ordaintzea bidezkoa izanen da.

26. artikulua. Lansariak eta ukipenak.

1. Lansarien kasuan, artikuluko honetan arautzen den zenbatekoak, diruz lagundu daitekeenak, honakoak hartzen ditu: proiektuaren erredakzioa, obra zuzendaritza, ikus-onetsiak eta bestelako laguntzak, horretarako beharrezkoak direnak, ukipenen kudeaketa izan ezik.

2. Lansariengatik gehieneko diru-ekarpena diruz lagundu daitekeen obraren zenbatekoaren gainean kalkulatu da, barne hartuta aurreko kontzeptu guztien zenbateko guztiak, exekuzioaren amaierako kostuarekin zuzenduta. Ez da izanen honako taula honetan zehaztutako portzentajeak baino handiagoa:

Diruz lagundu daitekeen obraren zenbatekoa (kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua, BEZ gabe)	Zuzendaritza fakultatibo kontratatua	Baliabide berekiak
500.000 eurokoa edo txikiagoa	%8	%6
500.000 eurotik gorakoa edo 1.000.000 eurokoa edo txikiagoa	%7	%5
1.000.000 eurotik gorakoa	%6	%4

3. Lansariengatik eman daitekeen diru-ekarpen gehienekoa kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko obraren esleipeneko beherapenak.

4. Era berean, ondasun eta eskubideen gaineko ukipenengatik emandako kalte-ordainen gastuak ere finantzatzen ahalko dira, horien titularrak diren pertsona fisikoak edo juridikoak toki entitate onuradunak ez direnean, V. eranskineko 2. atalean adierazitakoarekin bat.

27. artikulua. Toki Inbertsioen Planetik kanpo uztea.

1. Toki Inbertsioen Planetik erabat kanpo uzteko arrazoiak hauek izanen dira, eta horrek jasotako kopuru guztia itzuli beharra ekarriko du:

A) Inbertsioa Toki Inbertsioen Planean sartzea eragin duten baldintzak ez betetzea, edo baldintza horiei buruzko informazioa ezkatzea edo faltsutzea.

B) Foru lege honen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarritako epean lanak hasi ez izana.

C) Inbertsioari uko egitea guztiz, administrazio prozedurari buruzko oinarritzko legerian ukoak baliodunak izateko aurreikusitako moduan.

2. Toki Inbertsioen Planetik kanpo partzialki utz daitezke zenbait inbertsio, kasu hauetan:

A) Inbertsioa gauzatzeko ezarritako baldintzak ez betetzea, ez betetze horrek inbertsioaren xedea kaltetzen duenean.

B) Inbertsioaren gauzatzea justifikatzeko aurkeztutako agiriak aski ez izatea inbertsio osoa behar bezala egin dela frogatzeko.

C) Inbertsioaren amaiera justifikatzeko agiriak ezarritako epeetatik kanpo aurkeztea, salbu eta onartutako epe luzapenak ematen direnean inbertsioaren gauzatzearan erakunde publiko desberdinek parte hartzen dutelako, edo plan zuzentzaileetako aurreikuspenekin bat, edo legezko beste edozein arrazoigatik.

D) Obrak planean sartu eta gerora gertatutakoengatik inbertsioaren gauzatzea amaitzerik ez izatea.

Aurreko letretako kasuetan, zerbitzu tekniko eskudunek ikuskatuko dute behar bezala justifikatutako obra edo obra zatia, aurreikusitako erabilera publikorako erabil daitekeen edo ez zehazteko. Emaizta baiezkoa bada, zerbitzuaren iritzi IV. eranskineko 5. ataleko C) letran jasotako dokumentazioaren bidez frogatuta dagoen kostuaren zatiari dagokion diru-ekarpena ordainduko da.

E) Inbertsioa salbuespeneko araubidean sartzeko onartutako konpromisoak ez betetzea.

Ez betetze horrek berarekin ekarriko du araubide hori dela medio emandako kopuru gehigarriak jasotzeko eskubidea galtzea.

F) Inbertsioa gauzatzeko gehieneko epea ez betetzea horretarako eskatzen den baimena izan gabe.

G) Obra egiaztagirietan jaso gabeko hobekuntzak gehitu edo gauzatzeara.

3. Ekarpene ekonomikoa finkatu zuen organo berak emanen du planetik baztertzeko ebazpena, dagokion espedientearen tramitatu ondotik toki entitate interesdunari entzutea emanda hamabost egun balioduneguz. Prozeduraren hasierak etenda utziko du ordaintzeko dauden diru-ekarpenetarako eskubidea. Itzulketa eskatzen ahalko da, espedientearen interesdunari entzutea emanda tramitatu ondoren, konpentsazio bidez toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren transferentzia arrunten kargura, udalak edo kontzejuak direnean, eta ordainketa-gutunaren bidez gainerako entitate onuradunen kasuan.

28. artikulua. Gehieneko diru-ekarpenaren aldaketak.

1. Gehieneko diru-ekarpena ezin izanen da aldatu handitzeko.

2. Ekarpene gutxitzeko aldatuko da esleipeneko egiazko zenbatekoa lizitaziokoa baino txikiagoa denean eta, halaber, diruz lagundu daitekeen lana gauzatzeko egiazko kostua gehieneko diru-ekarpena finkatzean aurreikusitakoa baino txikiagoa denean.

Horrela eskatzen diren diru-kopuruak beste inbertsio batzuk finantzatzeko erabiliko dira, aplikatzekoak diren aurrekontu-mugak gainditu gabe eta inbertsio mota bakoitzerako ezarritako lehenetsun ordenari jarraikiz.

29. artikulua. Lankidetzaren hitzarmenak.

Lankidetzaren hitzarmenak izenpetzen ahalko dira Inbertsioen Programaren eta Toki Programazioaren ataletako lanak, toki entitate batzuek batera gauzatu beharrekoak, kudeatzeko. Horretarako behar den dokumentazioa IV. eranskineko 6. atalean aipatzen dena izanen da.

III. KAPITULUA Libreki erabaki beharrekoa

30. artikulua. Xedea eta arau orokorrak.

1. Libreki Erabaki Beharrekoen atalean, udal edo kontzeju onuradun bakoitzak zeregin haueta-

rako erabakitzen dituen jarduketak daude sartuta, III. eranskinen aurreikusitakoaren arabera banatuta:

A) Aurreko ekitaldi ekonomikoko kontuetatik ateratzen den diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzea.

B) Aurrekontu izaerako finantza pasiboak alde aurretik amortizatzea.

C) 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren babesean emandako hasiera baimenarekin gauzatzen diren lanak finantzatzea, bai eta Toki Inbertsioen egungo Planaren indarraldian gauzatu beharreko lanak ere.

D) Zerbitzuen funtzionamendu operatiborako beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak erostea, bai eta ondasun immaterial amortizagarriak ere, gastuen aurrekontuko sailkapen ekonomikoaren 6. kapituluaren kontabilizatu beharrekoak.

2. Libreki erabaki beharrekoen atalean jaso beharreko zenbatekoen zerrenda, inbertsioak zer urtetan eginen diren adierazita izanzen dituen, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez onetsi, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da; argitaratzen denetik aurrera hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da alegazioetarako.

Alegazioak ebatzi ondoren, jaso beharreko zenbatekoen behin betiko zerrenda onetsiko da, inbertsioak zer urtetan eginen diren adierazita, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3. Azken ekitaldi ekonomikoko kontuetan edo likidazioan diruzaintzako gerakin negatiboa duten udal eta kontzejuek Libreki erabaki beharrekoen atalean emandako kopuruak atala bera finantzatzeko erabili beharko dute, eta gainerakoa artikuluhonen 1. idatz-zatiko B), C) eta D) letretako jarduketetarako baliaitu dezakete. Ez da inolako zenbatekorik jasoko Libreki erabaki beharrekoen kontzeptuan diruzaintzako gerakina behar bezala frogatzen ez bada.

4. Libreki erabaki beharrekoen ataleko zenbatekoen onuradun diren toki entitateek justifikatu beharko dute aurreikusitako xederako aplikatu dituztela.

5. Libreki erabaki beharreko jarduketarako foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, ordaindutako kopuruak itzultzeko eskatuko da, kasuan kasuko espedientea interesdunei entzutea emanda tramitatu ondoren. Itzulketa hori konpentsazio bidez eskatzen ahalko da, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren transferentzia arrunten atalaren kargura.

31. artikulua. Diruzaintzako gerakin negatiboaren finantzaketa

1. 30. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen den behin betiko zerrenda argitaratu eta hilabeteko epean, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko erabili beharreko zenbatekoen behin-behineko zerrenda bat onetsiko da, toki ogasunei buruzko legeriarekin bat eskatzen diren kontuen edo aurrekontu likidazioaren espedienteen bidez frogatutako gerakinen arabera.

2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta ondoren 15 egun balioduneko epea irekiko da alegazioak aurkezteko edo frogatzeko diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko formulak onetsi direla, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 230. artikuluan eta irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 103. artikuluan xedatutakoarekin bat datozenak. Era berean, legez eskatutako kontabilitateko espedienteak aurkezten ahalko dira epe horretan, aurretik ez badira aurkeztu.

3. Diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko erabili beharreko zenbatekoen behin betiko zerrenda Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez onetsi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta ondoren ordaindu eginen da.

4. Diruzaintzako gerakin negatiboaren finantzaketa IV. eranskineko 9. atalean aurreikusitakoarekin bat frogatu beharko da, kasuan kasuko zenbatekoa jaso eta bi hilabeteko epean.

5. Aurreko idatz-zatietan ezarritako betebeharrak bete ezean, libreki erabaki beharrekoen atalean esleitutako kopuru osorako eskubidea galduko da.

32. artikulua. Aurrekontu izaerako finantza pasiboaren amortizazio aurreratua

1. Toki entitateek libreki erabaki beharrekoen ataleko ekarpena finantza pasiboak amortizatzeko erabiltzen ahalko dute, finantza entitateekin epe luzera hitzartutako aurrekontu izaerako eragiketetan jatorria duten pasiboak hain zuzen.

2. Kontzeptu honetan ordainketak egiteko ez da egokitasun txostenik beharko.

3. Kontzeptu honetan ordainketa bakarra eskatzen ahalko da. Diru-ekarpena zein urtetarako esleitua izan, urte horretako irailaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da eskabidea, IV. eranskineko 11. atalean adierazitakoarekin bat, eta artikuluhonen 1. idatz-zatian xedatutakoa bete dela

egiaztatu ondoren ordainduko da. Ordainketa hori aurrerakin gisa egingen da.

4. Jasotako zenbatekoaren aplikazioa IV. eranskineko 10. atalean ezarritakoarekin bat frogatu beharko da, kasuan kasuko zenbatekoa jaso eta bi hilabeteko epean. Betebehar hori ez betetzeak berarekin ekarriko du finantza pasiboen amortizazio aurreratua egiteko esleitutako zenbatekorako eskubidea galtzea.

33. artikulua. Obren finantzaketa eta material inbentariagarriaren erosketak.

1. 30. artikuluko 1. idatz-zatiko C) eta D) letretako inbertsioetarako egokitasun txostenak egiteko eskaerak inbertsioa zer urtetarako esleitzen den, urte horretako urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira, administrazio prozedura erkideari buruzko oinarriko legeria betez eta IV. eranskineko 7. atalean adierazitako dokumentazioa erantsita.

Udal edo kontzeju eskatzaile bakoitzak kome-nigarri iruditzen zaizkion material inbentariagarriaren inbertsio eta/edo erosketak guztiak sartzen ahal ditu eskabidean.

2. Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak eskaeraren egokitasunari buruzko txostena emanen du dokumentazioa aurkeztu denetik hilabeteko epean. Epe horretan toki entitateari jakinarazten ez bazaio eskaera egokia den ala ez, edo, kasua bada, zuzentzeko errekerimendua, iritzia aldekoa dela ulertuko da.

3. Udal edo kontzeju bakoitzak lanak eta material inbentariagarriaren erosketak finantzatzeko erabiltzen duen diru kopuru osoa aldi bakarrean edo bitan ordaintzen ahalko da, toki entitatearen aukeran. Azken kasu horretan, obra bat denean ziurtatze partzialak onartzen ahalko dira.

4. Artikulu honetan aurreikusitakoarekin bat egindako inbertsioak justifikatzen dituen dokumentazioa horiek egiten diren urteko abenduaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da. Inbertsioa ikuskatu eta IV. eranskineko 8. atalean horretarako eskatzen den dokumentazioa aztertu ondoren egingen dira ordainketak.

34. artikulua. Eskabideak eta agiriak zuzentzea.

1. Libreki erabaki beharrekoen atal honetan aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen foru lege honetan edo administrazio prozedura erkideari buruzko oinarriko legerian jasotako betebeharrak edo eskatutako dokumentazio osoa erantsirik ez badute, toki entitateari eskatuko zaio akatsa zuzendu edo aginduzko agiriak gehitzeko

hamar egun balioduneko epean. Hala egin ezean, eskaera ezetsizat hartuko da, hurrengo idatz-zatian xedatutakoaren kaltetan joan gabe.

2. 30. artikuluko 1. idatz-zatiko C) eta D) letretako inbertsioak ordaintzeko eskaerak direnean, zuzentzeko errekerimendua ez bada behar bezala bete, eskaera ukatu egin dela ulertuko da. Halere, ordainketa berria eskatzen ahalko da inbertsioak egokitasun txostena eskuratzen badu, inbertsioa zein urtetarako esleitzen den, urte horretako abenduaren 31 baino lehen eskuratu ere.

Lehenbiziko xedapen gehigarria. Inbertsioak zatika sartzea.

Nafarroako Gobernuak inbertsioak zatika sartzten ahalko ditu Plan honetan, betiere teknikoki ondoz ondoko fasetan gauzatzeko modukoak badira. Halaber, proiektu baten parte direnak ere sartzten ahalko dira, horien hasierako faseak Toki Inbertsioen aurreko planetan sartuta egonda.

Bigarren xedapen gehigarria. Gastuaren araua eta aurrekontu egonkortasuna.

Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kapital transferentziek hartzen ez duten gastu zatia, diruzaintzako gerakinarekin finantzatutakoa, ez da kontuan hartuko gastu konputagarriaren barruan gastuaren araua kalkulatzearen ondorioetarako. Aurrekontu egonkortasunaren helburua kalkulatzearen ondorioetarako, aplikatutako diruzaintzako gerakina doikuntza positibo gisa konputatuko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. Plana zabal-tzea.

Toki Inbertsioen Plan honetan sartutako inbertsioak finantzatzeko kredituak behin konprometitu-ta daudela, Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena eman ondoren, finantzaketa handitzen ahalko du Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kapital transferentzien atalari atxikitako diruzaintzako gerakinaren kargura, sartzeko modukoak diren baina aurretik, aurrekontuan diru erabilgarri askirik ez izateagatik, sartu ez ziren inbertsioei aurre egiteko.

Laugarren xedapen gehigarria. Diruzaintzako gerakina.

Kapital Transferentzien Funtsari atxikitako diruzaintzako gerakinak finantzatuko ditu, kasua bada, bai toki inbertsioen aurreko planetako inbertsioak bai egungoari eta balizko zabal-tzei dagozkie-nak. Gerakin hori ekitaldi bakoitzeko aurrekontu beharren arabera aplikatuko da.

Bosgarren xedapen gehigarria. Entitateen ondorengotza.

Toki entitate onuradun batek beste baten oinordetza hartzen badu kasuan kasuko eskumenak betetzeko, haren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da Toki Inbertsioen Planari dagokionez.

Seigarren xedapen gehigarria. Plan zuzentzaileak.

Foru lege honen 6. artikuluan eta harekin lotutakoetan aipatzen diren Inbertsioen Programak Nafarroako Gobernuak kasuan kasuko Plan Zuzentzaileetan jasotako aurreikuspenekin bat beteko dira. Toki entitateen jarduera koordina-tzearen ondorioetarako, plan zuzentzaile horien tokiz gaindiko interesaren deklarazioa eta aginduzko izaera mantentzen dira.

Plan zuzentzaileetan sartuta daude haietako bakoitzak dauzkan berezko helburuak erdiesteko beharrezkoak diren diagnosiak, adierazleak, helburuak, jarduketak eta bitartekoak.

Uraren goi hornidurarako Plan Zuzentzailearen helburua da ur eskariei kantitate eta kalitate egokiarekin erantzuten ahalegintzea, populaziorik gabeko hornitzeko, han-hemenkako kontsumo industrialak edo abeltzaintzakoak kontuan hartu gabe.

Unean-unean indarra duten Hiri hondakinen Plan Zuzentzailearen eta Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratuaren xedeak dira gai organikoaren eta material inerteen tratamendua egitea, gai organikoa eta papera/kartoia biltzea, garbiguneak instalatzea, obra-hondakinak entregatzeko tokiak, hondakindegia ixtea eta behar diren baliabide osagarriak.

Banda Zabalerako Plan Zuzentzailearen helburua belaunaldi berriko komunikazio sare berrien hedapena bultzatzea da, Nafarroako lurralde osoan kalitatezko banda zabaleko komunikazio zerbitzuetarako sarbide unibertsalaren bidez, bereziki orain arte sarbide onik izan ez duten eremuetan, horrela garapen ekonomikoa eta lurralde eta gizarte kohesioa sustatzeko.

Bi planek finkatzen ahalko dute zein jarduketa eremutan bilduko diren udalak eta zein konponbide tekniko hartu behar den kasu bakoitzean.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 3ko 13/2007 Foru Legearen laugarren xedapen iragankorra indarririk gabe gelditzen da.

Indarririk gabe gelditzen dira halaber foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

I. ERANSKINA. Toki Inbertsioen Planerako ekarpenak Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kargura.

	GUZTIRA (€)	2017	2018	2019
INBERTSIO PROGRAMAK				
Uraren goi-hornidura	20.400.000	6.025.000	8.655.000	5.720.000
Hondakinen tratamendua	9.500.000	3.400.000	2.660.000	3.440.000
Banda zabala	4.000.000	500.000	1.790.000	1.710.000
Azterlanak eta proiektuak	100.000	75.000	25.000	0
Inbertsio Programak, guztira	34.000.000	10.000.000	13.130.000	10.870.000
TOKI PROGRAMAZIOA				
Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak	11.260.000	1.440.233	4.613.981	5.205.786
Zoladurak eta sareak	13.540.000	1.731.860	5.548.251	6.259.888
Zoladurak sarerik gabe	1.600.000	204.651	655.628	739.721
Kaleko argiak	5.000.000	639.535	2.048.837	2.311.628
Azpiegiturak eta ekipamenduak araudira egokitzea	6.600.000	844.186	2.704.465	3.051.349
Bizitokietarako bideak	5.000.000	639.535	2.048.837	2.311.628
Toki Programazioa, guztira	43.000.000	5.500.000	17.620.000	19.880.000
LIBREKI ERABAKI BEHARREKOAK				
3.000 biztanletik gora duten entitateak	6.000.000	1.250.000	2.375.000	2.375.000
3.000 biztanle edo gutxiago dituzten entitateak	17.000.000	3.250.000	6.875.000	6.875.000
Libreki erabaki beharrekoak, guztira	23.000.000	4.500.000	9.250.000	9.250.000
INBERTSIO PLANA, GUZTIRA	100.000.000	20.000.000	40.000.000	40.000.000

II. ERANSKINA. Inbertsio Programetan sartutako lanak (BEZ gabe).

1. Ur horniduraren arloko Inbertsio Programan sartutako lanak, lehenetsunaren arabera:

TOKI ENTITATEA	OBRA	SARTUTAKO INBERTSIOA	2017	2018	2019
Erromantzatua	Biltegi orokorra	250.000	250.000		
Mairagako Mankomunitatea-Nafarroa erdialdea	Nafarroako Ubidetik ura hartzeko jarduketa osagarriak	96.000	96.000		
Mairagako Mankomunitatea-Nafarroa erdialdea	Goi horniduraren hodi nagusia La Pedreratik (1. fasea)	3.500.000	3.500.000		
Mairagako Mankomunitatea-Nafarroa erdialdea	Goi horniduraren hodi nagusia La Pedreratik (2. fasea)	2.500.000		2.500.000	
Sakanako Mankomunitatea	Iribasko iturburutik Irurtzenera bitarteko hodi orokorraren tarte batzuk berritzea	488.000	488.000		
Ultzuetako Mankomunitatea	Baterako konponbidea (2. fasea) Burutain - Ostitz eta Ziarriz lotunea	390.000		390.000	
Ultzuetako Mankomunitatea	Baterako konponbidea (5. fasea) Gorrantz-Olano lotunea	200.000		200.000	
Baztan	Iruritako konponbidea (3. fasea). Ziga eta Zigako Zuraurre hornitzea	378.000		378.000	
Ezkabarte	Eusa hornitzea	410.000	410.000		
Iruñerriko Mankomunitatea	Eusako biltegia eta hodiak	720.000	720.000		
Iruñerriko Mankomunitatea	Arreko biltegia	2.060.000	2.060.000		
Cortes	Idoia irazgaiztea eta Ubideko hargunea-idoia arteko hodia berritzea	490.000		490.000	
Cadreita	Uraren goi hornidurako hodi berria Moranteko urtegitik	504.000		504.000	
Jurramendiko Mankomunitatea.	Vianako eta Erriberako goi hornidura 3. fasea: Mendazako putzuak	290.000			290.000
Jurramendiko Mankomunitatea	Vianako eta Erriberako goi hornidura 4. fasea: Hodi orokorrak	2.500.000		2.500.000	
Jurramendiko Mankomunitatea	Aras Uraren goi hornidura Jurramendiko Mankomunitatetik	580.000		580.000	
Izarbeibarko Mankomunitatea	Errezu->Ziraukiko hodi nagusiaren berritze partziala (gainerakoa).	758.000		758.000	
Zangoza aldeko Zerbitzuen Mankomunitatea	Teleagintea eta telekontrola	90.000			90.000
Zangoza aldeko Zerbitzuen Mankomunitatea	Gabarderalgo biltegia	135.000			135.000
Zangoza aldeko Zerbitzuen Mankomunitatea	Araztegian lohietarako zentrifugagailua eta jarduketa osagarriak.	200.000		200.000	
Moncayoko Ur Mankomunitatea	Corellako hodi nagusiaren berritze partziala	680.000		680.000	
Ertzilako Uren Partzuergoa	Ertzilako iturburua-araztegia bitarteko hodiaren berritze partziala (1.650 metro)	130.000			130.000
Urdazubi	Urdazubi eta auzoak batera hornitzea	330.000	330.000		
Basaburua	Erregulazio biltegia Ihabenen (goi hornidura Arietako Iturritik)	180.000			180.000
Valtierra	Erregulazio biltegi berria	430.000			430.000
Galbarra	Uraren goi hornidurako hargunea eta hodia berritzea	100.000		100.000	
Baztan	Iruritako konponbidea (4. fasea) Hodi nagusiko erdiko tarte berritzea	150.000			150.000
Cascante-Cintruénigo-Fiteroko M.	Jarduketak erregulazio biltegiatan	129.000		129.000	
Tutera (Tuterako Ur Batzordea)	Santa Quiteriako biltegiaren egiturazko sendotzea	115.000	115.000		

Tutera (Tuterako Ur Batzordea)	Montes del Cierzoko biltegia eta ponpaketa handitzea (Castejon hornitzea)	450.000			450.000
Urrotz-Untziti-Lizoain	Mendinueta konponbidea, 6. fasea. Itzagaondoko eta Lizoaingo hodiak	450.000		450.000	
Basaburua	Berute hornitzea (Amabi eta Egozkue auzoak)	100.000			100.000
Erroibar	Lasturko eta Loizuko harguneak egokitzea	60.000		60.000	
Luzaide	Harguneak egokitzea	70.000		70.000	
Iruñerriko Mankomunitatea	Ziritzako biltegia	385.000		385.000	
Ultzanuetako Mankomunitatea	Latasako biltegia	160.000			160.000
Bera	Ibardin hornitzea (Eltzaurdiko biltegia eta lotuneak)	250.000			250.000
Malerrekako Mank.	Doneztebeko biltegia	300.000			300.000
Baztan	Txiskeñako iturriko hodia	138.000			138.000
Sakanako Mankomunitatea	Ihabar-Irurtzun hodi nagusia (partziala)	400.000			400.000
Irañeta	Erregulazio biltegia	180.000			180.000
Izarbeibarko Mank.	Hobekuntzak Argiñanoko hargunean eta biltegian	124.000			124.000
Mairagako Mankomunitatea-Nafarroa erdialdea	Azkoiengo adarra	2.700.000			2.700.000
Iruñerriko Mankomunitatea	Zuluetako ponpaketa eta bulkada	600.000			600.000
Cortes	Araztegioko jarduketa osagarriak	52.000			52.000
Atetz	Ziganda-Egillorko biltegia	180.000			180.000
Zugarramurdi	Hargune eta hodi berriak	62.000			62.000
Izarbeibarko Mank.	Mañeruko erregulazio biltegia irazgaiztea	100.000			100.000

TOKI ENTITATEA	OBRA	ERRESERBAKO INBERTSIOA	2017	2018	2019
Zangoza aldeko Zerbitzuen Mankomunitatea	Xabierko biltegia	200.000			
Ultzanuetako Mankomunitatea	Urritzola Galaingo hodia eta ponpaketa	250.000			
Jurramendiko Mank.	Vianako eta Erriberako goi hornidura 5. fasea: Hodi nagusiak	1.200.000			
Goñi	Goñi hornitzea Iruñerriko Mankomunitatetik	700.000			
Aguilar Kodes	Goi hornidurako hodia berritzea	148.000			
Urrotz-Untziti-Lizoain	Mendinueta konponbidea, 7. fasea. Teleagintea eta telekontrola	200.000			
Izarbeibarko Mank.	Gares-Obanos hodia (Kanpotxetasko tartea)	132.000			
Malerrekako Mank.	Aurtizko erreka hargunea hobetzea	200.000			
Cabredo	Goi hornidurako hodia berritzea	400.000			
Galbarra	100m3-ko biltegia	120.000			

2. Hiri hondakinen tratamenduaren arloko Inbertsio Programan sartutako lanak, lehentasunaren arabera:

TOKI ENTITATEA	OBRAKOA	SARTUTAKO INBERTSIOA	2017	2018	2019
Jurramendiko Mank.	Gai organikoaren konpostatzea hobetzea	544.500	544.500		
Erriberagoieneko Mankomunitatea	Filmaren berreskurapena eta xurgatze sistema hobetzea	585.640	585.640		
Sakanako Mankomunitatea	Konpostatze planta. 2. fasea	538.450	538.450		
Erriberako Mankomunitatea	Errefusaren egonkortze aerobikorako planta	1.452.000	1.452.000		
Bidautsi Mank.	Garbiguneak	16.000	16.000		
Mairagako M.	Garbiguneak	330.000	330.000		
Mendialdeko Mankomunitatea	Garbiguneak	125.598	125.598		
Sakanako Mankomunitatea	Garbiguneak	56.082	56.082		
Izarbeibarko Mank.	Garbiguneak	111.071	111.071		
Iratiko Mankomunitatea	Urrozko zabortegia Isuritako masa atera eta tratatzea	3.316.518	1.326.607	1.989.911	
Jurramendiko Mank.	Linea materialen aurretratamendua hobetzea	793.065		793.065	
Hondakinen Partzuergoa	Mendealdeko konpostatze planta	145.000		145.000	
Hondakinen Partzuergoa	Tafallako TP. Frakzio berrietarako prestatzea eta Ingurumenaren babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legean aurreikusi den aldaketara egokitzea	90.000			90.000
Bortzirietako Mank.	Garbiguneak	385.000			385.000
Jurramendiko Mank.	Garbiguneak	245.630			245.630
Erriberako Mank.	Garbiguneak	470.000			470.000
Iruñerriko Mankomunitatea	2 instalazio egitea garbigune finkoetarako, garbigune ibiltariak eta garbigune txikiak	850.000			850.000
Erriberagoieneko Mankomunitatea	Garbiguneak	1.035.000			1.035.000
Zangozako Mankomunitatea	Garbiguneak	50.000			50.000
Hondakinen Partzuergoa	Doneztebeko TP. Frakzio berrietarako prestatzeko, gai organikoaren konpostatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea prestatzeko sistemak paratzea, eta Ingurumenaren babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legean aurreikusi den aldaketara egokitzea.	620.170			620.170

TOKI ENTITATEA	OBRA	ERRESERBAKO INBERTSIOA	2017	2018	2019
Ezka-Zaraitzuko Mank.	Garbiguneak	50.000			
Iratiko Mankomunitatea	Garbiguneak	165.000			
Malerrekako Mank.	Garbiguneak	385.000			
Hondakinen Partzuergoa	Zangozako TP Frakzio berrietarako prestatzea, gai organikoaren konpostatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea prestatzeko sistemak paratzea, eta Ingurumenaren babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legean aurreikusi den aldaketara egokitzea.	630.830			
Jurramendiko Mank.	1. isurketa eremua ixtea	650.000			

3. Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko Inbertsio Programa

TOKI ENTITATEA	OBRA	SARTUTAKO INBERTSIOA	2017	2018	2019
Abartzuza, Bearin, Eraul	Deierri-Gesalatz sarbide sarea. Abartuzako adarra	254.000	254.000		
Iguzkitza, Murieta, Mendilibarri, Abaigar, Antzin	Lokizko Mendiko sarbide sarea. Antzin-Iguzkitzako adarra	264.000	264.000		
Artaxoa, Larraga, Berbintzana, Miranda de Arga, Lerin	Erdialdeko Argako sarbide sarea. Nafarroako Ubideko adarra (Tafalla-Lerin)	803.000		803.000	
Castejón	Iparraldeko Behe Ebroko sarbide sarea. Castejongo adarra	44.000	44.000		
Aberin, Morentin, Deikaztelu, Allo	Hegoaldeko Jurramendiko sarbide sarea. Lizarra-Alloko adarra	492.800		492.800	
Laraintzar, Arraitz-Orkin, Alkotz, Iraizotz, Ihaben	Iparraldeko haranetako sarbide sarea. Laraintzako adarra	538.800		538.800	
Leitza, Areso	Leitzaldeko sarbide sarea. Leitza-Aresoko adarra	132.000		132.000	
Lekunberri	Araxes-Larraungo sarbide sarea. Lekunberriko adarra.	26.400	26.400		
Elo	Iruñerriko ekialdeko sarbide sarea. Eloko adarra	30.800	30.800		
Obanos	Izarbeibarko sarbide sarea. Obanosko adarra	272.800		272.800	
Uharte Arakil:, Ekai	Erdialdeko eta Ekialdeko Sakanako sarbide sarea. Uharte Arakilgo adarra	203.400			203.400
Bargota, Armañanzas, Torres del Rio, Santsol, Elizagorria	Los Arcosko sarbide sarea. Bargota-Elizagorriko adarra	299.200			299.200
Bera	Bortzirietako sarbide sarea. Berako adarra	30.800			30.800
Ezkaroze, Orontze, Zaraitzuko Espartza	Zaraitzuko sarbide sarea. Ezkaroze-Espartzako adarra	360.800			360.800
Melida-Santakara, Zarrakaztelu, Murillo el Cuende	Aragoiko sarbide sarea. Caparroso-Melida-Zarrakazteluko adarra	539.000			539.000
Oroz-Betelu	Artzibarko sarbide sarea. Garralda-Oroz-Beteluko adarra	121.000			121.000
Abaurregaina, Abaurrepea, Garaioa, Aribe, Garralda	Aezkoako sarbide sarea. Jaurrieta-Garraldako adarra	583.000			583.000

TOKI ENTITATEA	OBRA	ERRESERBAKO INBERTSIOA	2017	2018	2019
Uztarroze, Izaba	Erronkariko sarbide sarea. Izaltzu-Izabako adarra	446.600			
Lesaka	Bortzirietako sarbide sarea. Lesakako adarra.	145.200			
Elgorriaga, Zubieta, Ituren	Malerrekako sarbide sarea. Doneztebe, Doneztebe-Zubietako adarra	272.800			
Viana	Viana-Mendabiako sarbide sarea. Viana A12ko adarra	132.000			
Irunberri	Irunberriko Arroako sarbide sarea. Irunberriko adarra	88.000			
Oibar, Kaseda	Oibar-Kasedako sarbide sarea. A21-Oibarko adarra	374.000			
Arizkun	Baztango sarbide sarea. Arizkungo adarra	100.000			
Luzaide	Erroibarko sarbide sarea Luzaideko adarra	100.000			
Markalain, Gartziriain, Ollakarizketa, Saldise	Erdiko haranetako sarbide sarea. Zokoandiko adarra (Markalain)	376.000			
Lodosa, Sartaguda	Goi Ebroko sarbide sarea Lodosa-Sartaguda	132.000			
Andosilla, Cárcar	Egako sarbide sarea Andosilla-Cárcar	105.600			
Cascante, Tulebras, Barillas, Monteagudo	Queilesko sarbide sarea. Cascante-Tulebras-Barillas-Monteagudo	220.000			
Buñuel, Cortes	Hegoaldeko Behe Ebroko sarbide sarea Buñuel-Cortes	165.000			

**III. ERANSKINA. Libreki erabaki beharreko-
en ekarpenak banatzeko irizpideak**

Udal konposatuetan, libreki erabaki beharreko-
en ataleko diru-ekarpena kalkulatzeko oinarritzat
hartuko den populazioa zehazteko, udalerriak
2015eko urtarrilaren 1ean duen populazio zifra ofi-
zialari udalerriko kontzejuetako populazio zifra ofi-
zialak deskontatuko zaizkio. Eraitza 10etik gorako
denean, hurrengo letren arabera
aurreikusitakoari jarraikiz dagokion kopurua aplika-
tuko zaio.

A) 3.000 biztanletik gorako udalerrri edo kon-
tzejuak.

3.001etik 5.000 biztanlera bitarte: 150.000 euro
toki entitate bakoitzeko.

5.001etik 10.000 biztanlera bitarte: 170.000
euro toki entitate bakoitzeko.

10.000 biztanle baino gehiago: 190.000 euro
toki entitate bakoitzeko.

A) letra honetan aipatzen diren toki entitateei
esleitu beharreko zenbatekoa, guztira, ez da
6.000.000 eurotik gorakoa izanen.

B) 3.000 biztanleko edo hortik beherako udale-
rriak edo kontzejuak.

10etik 50 biztanlera bitarte: 20.545 euro toki
entitate bakoitzeko.

51tik 3.000 biztanlera bitarte: populazioaren
arabera proportzioan dagokion zenbatekoa,
20.589,32 euroko gutxienekotik 51 biztanlerentzat
eta 148.000 euroko gehienekora 3.000
biztanlerentzat.

B) letran aipatzen diren toki entitateei eta 3.000
biztanleko edo gutxiagoko udal konposatuei eslei-
tu beharreko zenbatekoa, guztira, ez da
17.000.000 eurotik gorakoa izanen.

Salbuespen gisa, kontzejuren batek, zerbitzu
eskudunaren iritziz justifikatua den arrazoi baten-
gatik, ez badu eskatzen egokitasun txostena
horretarako ezarritako epean, udalak eskatzen
ahalko du, epe hori amaitu eta hilabeteko epean,
zenbateko hori ordaintzeko, kontzeju horretako
bizilagunentzat onuragarriak diren inbertsioetan
erabiltzeko.

IV. ERANSKINA. Dokumentazioa

1. Inbertsioen Programen atalean sartzen ahal diren inbertsioak zein diren ezartzea.

A) Toki entitateko alkatetzaren edo burutzaren ebazpen bat, jarduketaren kudeaketa integrala bere gain hartzeko borondatea edo lankidetzaraubidean egiteko eskaera adieraziz.

B) Toki entitateko alkatetzaren edo burutzaren ebazpen bat, kontu-hartzaileak behar bezala justifikatua, toki inbertsioen plan honek bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko konpromisoarekin.

2. Toki Programazioaren atalean sartzeko eskaerak.

A) Behar bezala betetako eskabide orria, inbertsiorako denbora-programazioaren proposamena barne.

B) Toki entitateko alkatetzaren edo burutzaren erantzukizuneko aitortpena, BEZ jasanaraziaren kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten inbertsioak eta sortzen ez dutenak bereizirik.

C) Txosten tekniko baloratua, teknikari eskudun batek sinatua, aurreikusitako lanak deskribatzen dituena, planoak, neurketa zehaztuak, aurreikusitako aurrekontu osoa eta lansariak ere barne hartuta.

D) Inbertsio motari dagokion fitxa, eranskin honen 3. atalean adierazitako ziurtagiriak erantsita.

E) Toki entitateko alkatetzaren edo burutzaren ebazpen bat, kontu-hartzaileak behar bezala justifikatua, toki inbertsioen plan honek bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko konpromisoarekin.

F) Kasua bada, eskumenen eskuordetzearen frogagiria edo dagokion udalaren ekimen faltarena.

G) Kasua bada, inbertsioa amortizatzeko eta/edo mantentzeko kostuen kalkulua.

3. Azpiegitura edo ekipamenduaren egoera justifikatzeko agiriak.

Idatz-zati honetako kasu guztietan, honako frogagiriak aurkeztu beharko dira: derrigorrezko hezkuntza mailetako ikasleak badirela, mendekotasunari buruzko legearen babesean dauden pertsonak, desgaitasuna edo mugitzeko arazoak dituztenak, zerbitzu publikoetako ibilgailuak sar-tzea behar dutenak.

A) Hornidurako, saneamenduko eta euri-ureta-ko toki sareak:

A.1) Osasun arloko arrisku edo arazo larriak: Osasun Publikoak edo laborategi independente batek emandako txostenak, eskatutako sareetan behar adina lagin hartuta.

A.2) Gehiegizko emariak hondakin uren tratamendu sistemetan eragindako disfuntzioak: Nafarroako Gobernu-entitate instrumental eskudunak emandako txostena.

A.3) Sarean ihes ugari egotea: txosten agiriduna, ihesen konponketa parteekin eta/edo ihesak atzemateko azterlanekin.

A.4) Uholde arriskuak, euri-uretarako sareen gaitasun faltak eragindakoak: eskatutako eremuan gertatutako uholdeei buruzko txosten agiriduna, uholdeetako emariak adierazita.

A.5) 40 urteko edo gehiagoko sareak: erantzukizuneko adierazpena eraiki ziren dataz eta egungo instalazioaren materialez.

A.6) Uraren presio desegokia kontsumo puntuetan: txosten agiriduna kontsumo puntuetan dauden presioei buruzko azterlanekin.

A.7) Egungo sareen egoera modu egokian diagnostikatzeko gaitasuna duten instalaziorik ez izatea: txosten agiriduna, sarearen egungo egoera, sarearen sektORIZAZIORAKO azterlan bat eta sarea optimizatzeko aurreikusi diren jarduketak jasota.

B) Zoladurak eta sareak.

Kasua bada, organo eskudunaren txostena, zoladura kokatuta dagoen hiriguneak interes kulturalerako ondasunaren deklarazioa edo garrantzi historiko artistikoa duela azaltzen duena.

C) Zoladurak sarerik gabe.

C.1) Sareen titularrak emandako ziurtagiria egoera azaltzen duena.

C.2) Planoak, obraren amaierako ziurtapenak, eta, kasua bada, eskatutako bideetan hornidurako eta saneamenduko sareak berritzeko egindako lanen saiakuntzak.

C.3) Sustatzailearen konpromisoa, obrak egin bitartean gertatzen diren ukipenak berritzeko edo lehengoratzeko lanen kostua bere gain hartzekoa.

C.4) Kasua bada, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren txostena, zoladura kokatuta dagoen hiriguneak interes kulturalerako ondasunaren deklarazioa edo garrantzi historiko artistikoa duela azaltzen duena.

D) Kaleko argiak.

D.1) Pertsonentzako eta ondasunetarako arriskuak: arrisku horiek dakartzaten faktoreen justifikazio teknikoak.

D.2) Energia aurrezpena: urteko elektrizitate kontsumoaren justifikazioa, hasierakoa eta jarduketaren ondorerako aurreikusten dena, energia eta ekonomia mailetan, kalkulaturako aurrezpenaren portzentajea, energia eragimena eta aurrezpena hobetzeko hartu beharreko neurriak eta eragimen energetikoaren erregelamendua betetzearena.

D.3) Instalazioaren antzinasuna: erantzukizuneko adierazpena eraiki ziren dataz eta egungo instalazioaren materialez.

E) Udal ekipamenduak eraikuntzako araudi teknikora egokitzea:

E.1) Ez betetzeen larritasuna eta horiek sortzen dituzten arriskuena: ez betetzearen deskribapena eta hartu beharreko neurrien eta Eraikuntzaren Kode Teknikoaren betetzearen justifikazio teknikoak.

E.2) Balizko erabiltzaileen kalkulua: erantzukizuneko adierazpena jarduketaren onuradun izan litezkeen erabiltzaileen kopuruari buruz.

F) Bizitoki iraunkorretara doazen bideak eta biziguneen artekoak

F.1) Pertsonentzako eta ondasunetarako arriskuak: arrisku horiek dakartzaten faktoreen justifikazio teknikoak.

F.2) Zerbitzu publikoetarako ibilgailuen sarbiderako oztupoak: erantzukizuneko adierazpena, mota, kopurua eta, kasua bada, zer maiztasunarekin pasatzen diren.

F.3) Balizko erabiltzaileen kalkulua: erantzukizuneko adierazpena jarduketaren onuradun izan litezkeen erabiltzaileen kopuruari buruz.

F.4) Euri-urak ateratzeko azpiegiturarik ez izateak edo egoera txarrean egoteak eragindako arriskuak.

4. Inbertsioen Programetako eta Toki Programazioko gehieneko diru-ekarpena finkatzea:

A) Exekuzio proiektua, osoko bilkurak, juntak edo batzarrak onetsia, eranskin honen 11. atalean jasotako gutxieneko edukiarekin.

B) Finantza plana onesten duen erabakia, osoko bilkurak, juntak edo batzarrak hartutakoa, eranskin honen 11. atalean jasotako ereduaren arabera.

C) Lankidetzak hitzarmenak, kasua bada, 6. atalean ezarritako edukiarekin.

5. Inbertsioen Programen eta Toki Programazioren ataletan sartutako inbertsioak ordaintzeko eskaerak:

A) Ordaintzeko eskaerak, obra hasiera dela eta:

A.1) Ziurtatzea, bertan adierazita honakoak:

– Litzentzio aurrekontua, obraren esleipen prezioa, proiektu teknikoaren erredakzioarena eta zuzendaritza fakultatiboarena, gertatutako aldaketa koefizienteak eta aplikaturako BEZa adierazita.

– Ezarritako exekuzio epea.

– Lanen esleipen-hartzailearen izena edo sozietate izena eta identifikazio fiskala.

– Esleipenerako erabilitako agirietan foru lege honen 20. artikuluan aipatzen den klausula soziala jasotzeko betebeharra betetzea.

A.2) Zuiketa aktaren kopia.

B) Ordaintzeko eskaera, obraren erdia egin da:

B.1) Obraren jatorriko ziurtapena, eta, harekin batera, esleipenerako baldintzekin bat datozen neurketa zehaztuak, gutxienez jabetzak eta obra zuzendaritzak izenpetuak, dagozkien fakturen kopiak edo, halakorik ezean, enpresa kontratistei egindako ordaintzen ziurtagiriak.

B.2) Prezio kontrajarrien aktak, bidezkoak direnean.

C) Ordaintzeko eskaera, obraren amaiera dela eta:

C.1) Obraren harrera-aktaren kopia edo ziurtapena, obra xede duen erabilera publikorako entregatzen ahal dela ziurtatzen duena; gutxienez jabetzak eta obra zuzendaritzak izenpetu beharko dute.

C.2) Obra amaierako memoria, amaierako egoeraren planoak, materialen saiakuntzen emaitzak eta instalazioen probak.

C.3) Obra amaierako jatorriko ziurtapena eta, harekin batera, esleipenerako baldintzekin bat datozen neurketa zehaztuak, gutxienez jabetzak eta obra zuzendaritzak izenpetuak, dagozkien fakturen kopiak edo, halakorik ezean, enpresa kontratistei egindako ordaintzen ziurtagiriak.

C.4) Laguntza Teknikoaren lansarien fakturen kopiak, bai eta ukitutako ondasun eta eskubideengatik emandako kalte-ordainenak ere, gertatu baldin badira.

C.5) Beste erakunde publiko edo pribatuetatik laguntzak jaso izanaren ziurtapena.

C.6) Prezio kontrajarrien aktak, bidezkoak direnean.

C.7) Uraren goi hornidurako Inbertsioen Programan sartutako inbertsioen kasuan: plano georreferentziatuak, Shape formatu digitalean.

6. Zenbait toki entitateren artean batera egindako lanen kudeaketarako lankidetzak hitzarmenei buruzko dokumentazioa.

A) Hitzarmenaren kopia edo ziurtapena, lan hauen ardura izanen duen enpresa zehaztuta: lanen lizitazioa egitea, foru lege honetan eskatutako justifikatzeko behar den dokumentazioa kudeatzea eta obraren amaierako ziurtapena egitea.

B) Toki entitate bakoitzak ordaindu beharreko zenbatekoen edo obra kostuaren portzentajearen gaineko ziurtapena.

7. Libreki erabaki beharrekoen atalerako egokitasun txostenen eskaerak:

A) Eskabidea, behar bezala bete, inbertsioa, kalkulaturako aurrekontua eta eskatzen den ekarpena deskribatuta.

B) Egindako inbertsioen kasuan, hasiera baimenaren erreferentzia, inbertsioaren likidazioa, proiektuko lansariak barne, eta eskatutako diruekarpena.

C) Bi toki entitateren edo gehiagoren artean batera egin beharreko inbertsioen kasuan, alkatez edo buruzak horretarako emandako ebazpenen ziurtapenak edo kopiak.

8. Libreki erabaki beharrekoen atalerako ordainketa eskaerak.

A) Hasiera baimena duten eta eginda dauden inbertsioen kasuan: harrera-akta, gutxienez jabetzak eta obra zuzendaritzak izenpetua; obraren likidazio zehaztua, egoeraren plana, fakturak edo ordainketa ziurtagiriak, eta beste erakunde publiko edo pribatuetatik laguntza jaso izanaren gaineko ziurtapena.

B) Plan honen indarraldian egindako lanetarako inbertsioen kasuan: egindako lanen memoria; obraren likidazio zehaztua; egoeraren plana; fakturak eta beste erakunde publiko edo pribatuetatik laguntza jaso izanaren gaineko ziurtapena, erantzukizuneko adierazpena, jarduketa edo jarduketak

Planaren indarraldian eta foru lege honen aurreikuspenekin bat bete direla jasotzen duena.

Amaitu gabeko obregatik ordainketa partzialak eskatzen badira, fakturak, obraren ziurtapen partzialak, enpresa kontratistari egindako ordainketen bankuko ziurtapena, beste erakunde publiko edo pribatuetatik laguntzak jaso izanaren ziurtapena, jasotako laguntzek edo jasotzeko daudenek, guztira, inbertsioaren zenbateko osoa ez dutela gainditzen frogatzen duena.

C) Ekipamendua, zerbitzuen funtzionamendu operatiborako beharrezkoak diren zerbitzu inbentariagarriak edo amortizatze modukoak diren ondasun immaterialak erostegatik: egindako jarduketan memoria, erositako ondasunen zerrenda eta fakturak, beste organismo publiko edo pribatuetatik laguntzak jaso izanaren ziurtapena, erantzukizuneko adierazpena, jarduketa edo jarduketak planaren indarraldian eta foru lege honen aurreikuspenekin bat bete direla jasotzen duena.

9. Diruzaintzako gerakin negatiboak finantza-teari dagokion ziurtagiria:

Idazkaritzaren ziurtagiria, diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko behar diren funtsak aplikatzeko egindako jarduketei buruzkoa.

10. Finantza pasiboen amortizazio aurreratuari dagokion ziurtagiria:

Idazkariaren ziurtapena, amortizatutako finantza pasiboen izaera, data eta kopurua adierazita eta zehaztuta zer kredituri eragiten dioten, haietako bakoitzean aplikatutako zenbatekoak eta zorpe-tze maila gutxitzeko erabiltzen direnetatik bereizirik daudela, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan xedatutakoa betez.

11. Planean sartzeko eskabide ereduak eta inbertsio motaren arabera fitxenak Toki Programazioaren atalerako; finantza planarenak eta proiektuei erantsi beharreko gutxieneko dokumentazioarenak, Inbertsioen Programan eta Toki Programazioaren atalerako; egokitasun txostenarenak eta finantza pasiboen amortizazio aurreratuak egiteko ordainketa eskabideenak, Libreki Erabaki beharrekoen atalerako: Nafarroako Gobernuaren web orrian egonen dira ikusgai.

V. ERANSKINA. Zenbateko lagungarriaren kalkulurako oinarria.

1. Diruz lagundu daitekeen obra.

A) Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretarako toki sareak.

Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretarako sareak berritzea. Diruz laguntzen ahalko dira honakoak: hodiak, obra zibila, fabrikako lanak, pieza bereziak, balbulak, bentosak, hidranteak, ur-harguneak, zorrotanak eta instalazioaren funtzionaltasuna bermatzen duten gainerako elementuak, bai eta ukitutako ondasun eta zerbitzuak lehengoratzeari ere.

Lur partikularretan egindako deribazioak bazter daude, bai eta, orokorrean, interes partikular hutsa duen sare oro.

Instalaturako presio multzoak diruz laguntzekoak izanen dira presio faltaren arazoa orokorra denean eta haren arrazoiak biltegiaren kosta aski ez izatea denean.

Trazadura orokorrak eta banakako deribazioek edateko uraren kontsumorako eskariari eta sanea-

menduko instalazioei erantzunen diete bizitegitarako eraikinetako etxebizitzetan eta bulegoetan, industriako edo erabilera tertziarioko eraikinetan, salbu eta baratzeetan eta erantsiak dituzten eraikinetan, eta aurri-egoeran edo zerbitzuz kanpo dauden eraikinetan.

Zoladura lanak sarerik gabe egiten direnean, zangak lehengoratzeko lanen zenbatekoa diruz laguntzekoa izanen da.

Sareen egoera diagnostikatzeko instalazioak. Diruz laguntzen ahalko dira honakoak: 30 urtetik gorako kontagailuak berritzea; kontagailuak paratzea halakorik ez badago; emari, presio eta kloro neurgailuak; presioa erregulatzeko elementuak; teleaginteak, erregistroak jaso eta transmititzeko elementuak; beharrezkoak diren ekipoak jartzeko behar de obra zibila, eta, oro har, kudeaketa efizientea ziurtatzeko helburuarekin sarearen diagnostikoa egiteko behar diren elementu guztiak.

B) Zoladura-lanak eta sareak.

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko, zoladuraren metro koadroko unitate-kostua ez da hau baino handiagoa izanen:

	Galtzada Gehieneko kostua, €/m ²	Espaloiak Gehieneko kostua, €/m ²
Alde zaharrak, "interes kulturalerako ondasun" deklaratuak	109,00	163,00
Garrantzi historiko artistikoa duten alde zaharrak	87,00	116,00
Gainerako hiriguneak	40,00	61,00

Espaloietakoko unitate-kostua soilik aplikatuko da galtzada eta espaloia fisikoki bereizirik daudenean. Ez da aplikatuko galtzada eta espaloia kosta berean daudenean eta eraikuntzako sekzio bera dutenean.

Espaloietakoko metro koadroko unitate-kostuan sartuta daude honakoak: zelaigunearen prestaketa, oinarri eta azpionarri pikortsu trinkotuak, oinarriko hormigoia, mortairua, akaberak.

Galtzadako metro koadroko unitate-kostuan sartuta daude honakoak: zelaigunearen prestaketa, oinarri eta azpionarri pikortsu trinkotuak, hormigoizko harlauza edo asfaltozko geruza, euri-urak azaleratik ateratzeko ubidea.

Galtzada eta espaloietakoko metro koadroko unitate-kostuan ez dago sartuta aurreko zoladura eraisteko lanen kostua.

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko, eustormaren metro linealeko unitate-kostua ez da hau baino handiagoa izanen:

	Gehieneko kostua, €/ml
Metro baterainoko altuerako horma	300,00
Metro bat eta erdirainoko altuerako horma	450,00
Bi metrorainoko altuerako horma	600,00
Bi metro eta erdirainoko altuerako horma	750,00
Hiru metrorainoko altuerako horma	900,00

Eustormaren metro linealeko unitate-kostuan sartuta daude honakoak: hondeatze lana, zimenduetarako eta estradoserako, zapata, enkofratuak, altxaerak, irazgaiztea, drainatzea, betelanak eta akaberak. Altuera zapataren goiko aldetik gailurre-raino neurtuko da. 3 metrotik gorako altuera duten

hormetan, gehieneko kostua 150 euro handituko da 0,50 ml bakoitzeko.

Diruz laguntzen ahal den zenbatekoaren barruan sartzen ahalko da barandak jartzea, altueran erorikoen arriskua murrizteko edo ibilbideak errazteko helburuarekin, betiere zoladura eta sareak egiteko diruz lagundu daitekeen obra baten barruan egiten badira eta horien unitate-prezioa metro linealeko 100 eurotik gorakoa ez bada.

Aipatutako prezio guztiak exekuzio materialari dagozkio.

Laguntza jaso dezake lur azpiko kanalizaziorako obra zibilak, etxeetako telekomunikazioen, energia elektrikoaren eta kaleko argien hornidurari dagokienak, harguneak paratzeko eta/edo aireko lineak ordeztzeko lanak 5 urteko gehieneko epean gauzatzeko konpromisoa hartzen bada. Sartuta daude lan hauek: zangak zulatzea, hormigoizko betegarriak edo pikortsuak, elektrizitaterako ez diren hodiak, seinalizazio elementuak, fabrikako obrak eta kaleko argietarako zutoinen zimendatzeak.

Zoladura eta sareak egiteko lanak egin behar dituen toki entitateak D ataleko lan bat egin behar badu Toki Inbertsioen Planaren kargura, atal horrekin lotutako jarduketa guztiak Kaleko argien ataleko lan gisa sartuko dira.

Planeko toki programazioko inbertsioei atxikitako baliabideak lurraldean hobeki banatzeko, hornidurako, saneamenduko eta euri-uretarako sareen eta zoladura sareekin egiteko lanetarako gehieneko diru-ekarpenaren ondoko portzentaje mugak ezartzen zaizkie populazio tarte hauetan sartutako entitateei:

Populazio tarteak	Gehieneko %
100.000 biztanletik gora	%16
50.001etik 100.000 biztanlera bitarte	%8
35.001etik 50.000 biztanlera bitarte	%6
25.001etik 35.000 biztanlera bitarte	%5
15.001etik 25.000 biztanlera bitarte	%4.
10.001etik 15.000 biztanlera bitarte	%3.
10.000 biztanlekoak edo gutxiagokoak	%2.

Ondorio horietarako, 2015eko urtarrilaren 1eko populazio zifra ofiziala hartuko da kontuan. Mankomunitateen kasuan, mankomunitateek zer udalerriri ematen dieten ur horniduraren zerbitzua, udalerriri horietako populazioaren kopuru osoa hartuko da kontuan.

C) Zoladura sarerik gabe.

Zoladura sareekin egiten denean hartzen diren parametro berberak hartuko dira kontuan, salbuespen hauekin:

Ez da diruz lagunduko lurrazpiko kanalizazioen obra zibila, etxeetako telekomunikazioen, energia elektrikoaren eta kaleko argien hornidurak egitekoa.

Gehieneko diru-ekarpena ez da 150.000 eurotik gorakoa izanen toki entitate bakoitzeko.

D) Kaleko argiak.

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoan honakoak sartzen dira:

D.1) Merkurio-lurrunezko lanparak eta/edo prezio handiko sodio-lurrunezkoak (VSAP), eta ekipamendu osagarria kendu, eta LED teknologiako lanparak jartzea.

D.2) Errendimendu handiko luminariak eta potentzia txikiagoko lanparak paratzea, daudenak ordeztuz.

D.3) Argiaren maila erregulatzeko sistemak paratzea, kaleetako jarduera gutxitzen denean bertako argi maila gutxitzeko.

D.4) Piztu eta itzaltzeko sistemak paratzea, erloju astronomikoaren, presentzia-detekttagailuaren edo esku-sakagailuen bidez.

D.5) Jarduketarekin lotutako obra zibila, diruz lagundu daitezkeen eta beharrezkoak diren ekipak, materialak eta instalazioak.

Gehieneko diru-ekarpena ez da 150.000 eurotik gorakoa izanen toki entitate bakoitzeko.

E) Udal ekipamenduak eraikuntzako araudi teknikora egokitzea.

E.1) Ingurukari termikoaren hobekuntza, energia beharrak nabarmen murriztuko dituen. Ingurukari termikoan eraginez eraikineko berokuntza eta klimatizaziorako energia eskaria murriztea ahalbidetuko duten jarduketak diruz laguntzen ahalko dira. Eraikinaren kalifikazio energetiko osoa hobetu behar dute, gutxienez ere letra 1, karbono dioxidoaren emisioen eskalan neurtuta (CO₂ kg/m² urtean), eraikinaren hasierako kalifikazio energetikoarekin alderatuta.

E.2) Ingurukariaren hobekuntza, eraikinaren barrenean babesa emanen duena hezetasunari aurre egiteko. Diruz laguntzen ahalko dira hormetan eta lurrarekin kontaktuan dauden zoruetan eta kanpoko airearekin kontaktuan dauden itxituretan (fatxadak eta estalkiak) egin beharreko jarduketak, eraikinen barrenean prezipitazio atmosferikoen,

isurien, lurraren edo kondentsazioen ondorioz dagoen urak eragindako hezetasuna kentzeko xedea dutenak.

E.3) Eraikina husteko ibilbideak egokitzea sutea gertatzen den kasurako. Diruz laguntzen ahalko dira eraikina jendez husteko bitarteko egoiak hornitzen dituzten jarduketak, bertan daudenek segurtasunez alde egin edo barrenean toki seguru batera iristea ahalbidetzeko helburuarekin. Jarduketan jomuga nagusia husteko ibilbideetan dauden ateak, pasabideak, arrapalak eta eskaileak izanen dira.

E.4) Irisgarritasunaren hobekuntzak eta irisgarritasunerako ibilbideak egokitzea solairuen barrenean eta eraikineko maila desberdinen artean, arrapalak eta igogailuak jartzea barne. Diruz laguntzen ahalko dira desgaitasuna duten pertsonen eraikinetan sartzea eta eraikinak diskriminaziorik gabe eta modu independente eta seguruan erabiltzea erraztea dieten jarduketak. Jarduketan jomuga nagusia izanen da ibilbide irisgarriak sortzea eraikinetik kanpo, eraikineko solairuetan eta eraikineko solairuen artean, eskaileak, arrapalak eta/edo igogailuak erabiliz. Era berean, igerilekuetan ere ibilbide irisgarriak sortzea aurreikusten da.

E.5) Erorketa arriskua gutxitzea, koskak murriztuz, azalera irristakorrak kenduz edo beste-lako babes sistemak ezarriz. Diruz laguntzen ahalko dira arrisku horiek murrizten dituzten jarduketak, zoruak egokituz irristatzea, behatopatzeta eta mugitzeko zailtasunak saihesteko, bai eta zulotan, kosketan, eskailean eta arrapaletan erortzeko arriskua murrizten dutenak ere.

E.6) Legionelosiaren prebentziorako sistemak ezartzea. Diruz laguntzen ahalko dira legionelosiaren prebentzio eta kontrolerako egiten diren jarduketak, osasun eta higiene arloko neurriak hartuz funtzionamenduan ura erabiltzen duten instalazioetan, aerosolak sortzen dituztenetan eta erabilerak kolektiboko eraikinen barrenean edo kanpoaldean daudenetan, legionella zabaltzeko eta ugaltzeko aukera handiagoak daudela eta. Hozte dorreen eta lurruntze kondentsagailuen gaineko jarduketak hartuko dira kontuan, eraikinen kanpoaldean, eta barnean metagailua eta itzulera-

zirkuitua duten ur bero sanitarioaren sistemen gainekoak.

Aurreko kasu guztietan, diruz laguntzekoak izanen dira, soilik, finantzatu beharreko jardueraren izaerari erantzuten dioten eta behar-beharrezkoak diren kontzeptuak, eskabidean eta exekuzio proiektuan jarduketaz egiten den deskribapenean oinarrituta.

Gehieneko diru-ekarpena ez da 150.000 eurotik gorakoa izanen toki entitate bakoitzeko.

F) Bizitoki iraunkorretara doazen bideak eta biziguneen artekoak.

12 E) artikuluan finantzagarritzat hartzen diren bideetan edo bide tarteetan egindako jarduketak diruz laguntzen ahalko dira, bizitoki edo bizigune bat beste batekin lotzen badute, bai zuzenean bai bertako errepide batekin lotuz, beste alternatibarik ez badago.

Bidearen egungo zabalerari dagokion zatia baik ez da finantzatuko, balizko handitzeak kontuan hartu gabe.

Zoladuraren metro koadroko unitate kostu gehienekoa ez da 35 eurotik gorakoa izanen (exekuzio materialaren aurrekontua), barne hartuta honakoak: zelaigunea prestatzea, oinarri eta azpioinarri pikortsu trinkotuak, hormigoizko harlauza edo asfaltozko errodadura-geruza, euri-urak azalera ateratzeko ubidea eta akaberak.

Gehieneko diru-ekarpena ez da 120.000 eurotik gorakoa izanen toki entitate bakoitzeko.

2. Ukipenak.

Kalte-ordainengatik izandako gastuetan, diruz laguntzen ahal den zenbatekoan sartuta daude toki entitate onuradunez beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen titularitatekoak diren ondasun eta eskubideen gaineko ukipenengatik egin beharreko ordainketetarako behar direnak, bai eta legez eskatutako argitalpenenak ere.

Halaber, diruz laguntzen ahal den zenbatekoan sartuta dago lanek ukitutako lurra kudeatzeko laguntza teknikoaren gastua ere. Azken kontzeptu horretan diruz laguntzen ahal den zenbatekoa ez da 120 eurotik gorakoa izanen okupatutako finka bakoitzeko, BEZa kenduta.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2016ko irailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen honako foru lege proposamen hau aintzat hartzea: "Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa". Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta 2016ko irailaren 7ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost** egun balioduneko **epe bat hasiko da, 2016ko azaroaren 2ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak foru lege proposamen bat aurkeztu dute, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.

Kontuan izanik hirugarren xedapen gehigarria onesteko gehiengo osoa behar dela, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari buruzkoa baita, eta Erregelamenduko 152.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, aipatu foru lege proposamenetik erauzi beharra dago Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari dagokion edukia, zeina beste proposamen bat bezala izapidetuko baita Erregelamenduaren 153. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

Horregatik guztiagatik, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148.5, 152 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko Foru Lege proposamenetik erauztea Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeari dagokiona.

2. Xedatzea Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

3. Proposamen horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proposamena argitaratzen denetik **hamabost egun** baliouduneko epea irekiko da, **2016ko azaroaren 2ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko Foru Lege proposamena izapidetuko du, zeinaren hirugarren xedapen gehigarriaren bidez aldatu egiten baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.

Aipatu 19/1996 Foru Legearen aldaketa onesteko, beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuko kideen gehiengo osoa, hala ezartzen baita Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 25. artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 152. artikuluan. Hori dela eta, erauzi egin da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko Foru Lege proposamenetik, eta honako foru lege proposamen hau hezurramitzaera igaro da.

Aldaketa-sorta bat da, xedetzat duena bateraezintasunei buruzko araudia Nafarroako Foru

Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren arauetara egokitzea, Goi karguen jardueren eta interesen Erregistroari dagokionez –bulego horrek kudeatua izatera pasako da erregistro hori– eta bateraezintasunen arloko zehatze-eskumena bulego horri ere emateari dagokionez.

Artikulu bakarra. Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzea, Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioi goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.

Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioi goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen honako manu hauen testua jarraian emandakoa izanen da:

Bat. 8. artikulua. Kudeaketa-organoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak independentzia osoz kudeatuko du Goi Karguen Jardueren eta Interesen Erregistroa.

Bi. 10. artikulua. Informazioa Nafarroako Parlamentuari.

Foru Lege honetan ezarritako bateraezintasun araubidearen kontrolaren gardentasuna ziurtatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak, sei hilabetean behin, informazioa igorriko du Nafarroako Parlamentura goi karguek aitortpena egiteko obligazioa nola bete duten eta foru lege honen aurka egin diren arau-hausteak eta ezarri diren zehapenak ere adieraziz.

Hiru. 11. artikulua. Jardueren gaineko aitortpena.

3. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak aitortpena aztertuko du, eta akats formalik aurki-

tzen baldin badu interesdunari eskatuko dio akats hori zuzendu dezan.

Lau. 12. artikulua. Ondasun eta eskubideen aitortpena.

5. Ondarearen gaineko aitortpenarekin batera –hartan jasotzen dira bere ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak–, goi karguak bere baimena emanen dio Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari, banku entitateei ziurtagiri bat eska diezaien, data horietan aitortutako kontu korranteetan dauden saldoei buruzkoa.

Bost. 17. artikulua. Zehapen prozeduraren aurreko jarduketak.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak, edozein zehapen espediente abiarazi aitzin, aurretiazko jarduketa erreserbatuak egiten ahalko ditu espedientea abiaraztea justifikatzen duen inguruabarririk ba ote den zehaztearen.

Sei. 19. artikulua. Zehapen prozedurako organo eskudunak.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa da zehapen prozedura abiarazteko organo eskuduna; Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendariak izendatutako funtzionarioa da, berriz, instrukzioa egiteko organo eskuduna.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarririk gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan aniztasunaren arretaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkezturiko jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan aniztasunaren arretaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderi atxikitako Carlos Gimeno Gurpeguik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua hainbat ekimen abiarazten ari da aniztasuna artatzeko baliabideei dagokienez eta hezkuntza-laguntzako premia bereziekieko ikasle guztientzako laguntza "osatzeko" xedez; bereziki, hezkuntza premia bereziekieko ikasleentzako. Aniztasunaren arreta continuum bat da, bi pertsonak espazio bat edo jarduera bat partekatzen duten unean bertan hasten dena. Horietako bakoitzak, bere ezaugarriengatik, bere bizipenengatik eta bere bizitza-inguruabarrengatik, hezkuntza premia berezi batzuk ditu hezkuntzaren arloan.

Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen mozio bat, zeinean Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen "aurkez dezan, bai eta hezkuntza komunitatearekin eta zerikusia duten eragile guztiekin eztabaida dezan ere, Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat, eskola inklusibo baten esparruan", 2017-2018 ikasturtean.

Jabelduraren testua:

Nafarroako Gobernuarentzako jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan aniztasunaren arretaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Jabeldura, aniztasunari eta migrazioei buruzko politika orokorrari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkezturiko jabeldura, aniztasunari eta migrazioei buruzko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroa anitza da kulturalki, eta aniztasun horretatik abiatuta behar dugu lan egin eta behar

ditugu erreibindikatu pertsona guztientzako eskubide guztiak aukera berdintasunean.

Gizarte kohesionatu bat lortzea da EH Bilduren helburuetako bat, eta horretarako giltza bizikidetasunean datza. Bizikidetasun hori lortzeko, behar-beharrezkoa da elkar ezagutu, ulertu eta aitortzea.

Hartara, parlamentari honek jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, aniztasunaren eta migrazioen gai orokorrari dagokionez, eta jakite aldera zer politika publiko darabilen:

1.- Arau, ekimen eta politika publiko guztiek bizikidetasuna bultzatzen dutela eta aniztasuna errespetatzen dutela bermatzeko.

2.- Bizikidetasuna sustatzeko eta jatorri- nahiz kultura-aniztasuna kohesiorako elementu bihurtzeko.

3.- Elkarren ezagutza, ulertzea eta aitortzea bultzatzeko.

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du herri-festen polizitazioa, eta udalak, kontzejuak, peñak eta kultur nahiz auzo elkarteak premiatzen ditu festagune anitz, integratzaile eta gorrotorik nahiz propaganda politikorik gabekoen alde lan egin dezaten.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu herri-festen polizitazioa, eta udalak, kontzejuak, peñak eta kultur nahiz auzo elkarteak premiatzen baititu festagune anitz, integratzaile eta gorrotorik nahiz

propaganda politikorik gabekoen alde lan egin dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu herri-festen politizazioa, eta udalak, kontzejuak, peñak eta kultur nahiz auzo elkarteak premiatzen baititu festagune anitz, integratzaile, eta gorrotorik nahiz propaganda politikorik gabekoen alde lan egin dezaten.

Udan zehar, azken hamarkadetako ohiturari jarraikiz, sektore politiko jakin batzuek propaganda-kanpaina handi bat egiteko baliatu dituzte herri-festak, beren ideologia eta identitate politikoak zabaltzeko eta ezberdin pentsatzen eta sentitzen dutenak beldurtzeko xedez. Kanpaina horren kariatara, pintaketak egin dira guneko publiko eta pribatuetan, afixa politikoak, pegatinak, pankartak eta banderak jarri dira, eta manifestazioak, kontzertuak, solasaldiak, brindisak eta abar egin dira. Jarduera horietan, sarritan, gorroto-mezuak eta indarkeria politikoa goratzekoak zabaldu dira. Zenbait lekutan –adibidez, Iruñeko Navarrerian, Aldapa kaleko San Ferminetan–, sektore horiek espazio publikoa zigorgabekeriak konkistatu eta monopolizatu dute, gure gizartearen ezaugarri den aniztasunaren irudi zeharo desitxuratua emanez. Horren ondorioz, pertsona asko sentitzen dira festetatik bazterturik, iraindurik eta mehatxaturik, haien delitu bakarra izaki beren identitate politiko eta kulturala. Jabetu egin beharra dago festen politizazioak eta festetan gorroto-mezuak zabaltzeak larriki hondatzen dutela bizikidetasuna eta denoi egiten digutela kalte.

Ideiak libreki eztabaidatu eta zabaltzea da, zalantzarik gabe, gizarte demokratiko oren funtsezko oinarria. Halere, horren muga zera da, onartzea aniztasuna nahiz identitate- hizkuntza-, politika-, sexu- eta erlijio-bestelakotasuna. Gainera, gizarte demokratiko orotan badaude zenbait

guneko non, adostasunez, eragileek politika egiteari uko egin baitiote. Inork ere ez luke onartuko, adibidez, politika egitea haur eskola batean, hilerri batean edo ospitale batean. Beste horrenbeste egin beharko litzateke herri-festetan; izan ere, nafar guztion ondarearen funtsezko parte bat dira. Urtean zehar badira jai ez diren egun asko, jarduerak politikoak programatzeko.

Horregatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu herri-festen politizazioa eta festaguneak propaganda politikoa egiteko eta gorroto-mezuak zabaltzeko erabiltzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako udalak, kontzejuak, peñak eta kultur nahiz auzo elkarteak premiatzen ditu festetan zehar bizikidetasuna hobetzeko eta festaguneak anitzak, integratzaileak eta gorrotorik nahiz propaganda politikorik gabekoak izatearen alde lan egin dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak alderdi politikoei eskatzen die festaguneetan ez dezaten ekitaldi politikorik programatu eta propaganda-ekitaldirik egin ez dezaten. Horri dagokionez, ez da halakotzat hartuko alderdien egoitzetako ostalaritza-jardura.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez harremanetan jar dadin foru erkidegoko toki entitateekin, haiek premiatze aldera festa anitz, integratzaile eta gorrotorik nahiz propaganda politikorik gabekoak susta ditzaten.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio kanpaina bat abian jar dezan herritarrak arazo hau dela-eta kontzientziatzeko eta helburu horiek sustatzeko.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia egiten duela Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala (Comprehensive Economic and Trade Agreement).

EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu arbuia egiten duela Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala (Comprehensive Economic and Trade Agreement).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Herrien arteko merkataritza-harremanak normalak eta interes handikoak izan dira historian zehar, gizateriarentzat ekarri duten aberastasun ekonomiko eta kulturalarengatik. Halere, gure ustez, Parlamentu honek zaindu beharko luke nazioarteko merkataritza errespetutsua izan dadin giza garapenarekin, eta, zehazki, nazioko nahiz nazioarteko arauak eta itunak bete ditzan giza eskubideen, laneko eskubideen, eskubide sozialen eta ingurumen-babesaren arloetan, eta arbuia egin beharko luke nazioen eta erregioen subiranotasunarekiko errespetua kaltetzen duen arbitraje pribatuko edozein klausula txertatzea nazioarteko akordioetan. Izan ere, funtsezkoa da herritarren eskubide sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta ingurumenaren arlokoak interes orokorraren ikuspegitik defendatzea, sendotzea eta indartzea.

Hortaz, guretzat kezkarria da Kanadaren eta Europar Batasunaren arteko “Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala” (ingelesez, CETA-Comprehensive Economic and Trade Agreement) dela-eta egiten ari diren negoziazioan aurreikustea, gaur egungo bertsioan, inbertsiogileen eta estatuen arteko desadostasunak ebazteko mekanismo bat –“Inbertsiogileen eta Estatuen arteko Desadostasunak Ebazteko Sistema (ingelesez, ISDS), gero “Inbertsio Auzitegiaren Sistema” deitu dena (ingelesez, ICS)–, zeinaren bidez ahalbidetzen baita korporazioek, enpresa handiek eta finantza-taldeek jo ahal izatea nazioen eta erregioen subiranotasunarentzat eta eskumenentzat (beren parlamentuentzat ere bai) mehatxu bat diren arbitraje-azitegi pribatuetara, halako moduan non arriskuan jartzen baita neurriak interes orokorraren ikuspegitik hartzeko eskubidea herritarren eskubide sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta ingurumenaren arlokoak defendatu, sendotu eta hobetzeko, hala nola parlamentuen eta gobernuen ekimenak honako arlo hauetan: eskubide sindikalak, gutxieneko soldata, osasunaren babesa, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta tokiko elikaduraren sustapena, edo kutsaduraren aurkako borroka. Gure ustez, hori ez da inolaz ere beharrezkoa, zeren Europar Batasunak eta Kanadak beren esparru juridiko berekiak eta eskudunak baitauzkate eginkizun horretarako, eta, hortaz, ez da behar “Inbertsiogileen eta Estatuen arteko Desadostasunak Ebazteko Sistema” (ingelesez, ISDS) bezalakorik.

Akordio horrek orobat jasotzen ditu zeharkako zenbait erregulazio, merkatuetarako sarbideari eta diskriminaziorik ezari buruzko oinarritzko printzipioei dagozkienak, ondorio izanen luketenak eragozteko bai kontratazio publikoan klausula sozialak eta ingurumenekoak sartzeko eskubidea bai enpresa txikiak eta ertainak nahiz tokiko ekonomia sustatzeko ere. Gure asmoa da hori guztia jorratu ahal izatea Nafarroako kontratazio publikoari buruzko hurrengo legean.

Orobat murriztuz lezake autonomia erkidegoetako gobernuek tokiko hornitzaileei eta irabazi asmorik gabeko elkarrekin laguntzeko duten ahalmena, eta eragin lezake sektore publikoko lanpostuak enpresa pribatuetara ateratzea, non langileak

sarritan behartuta baitaude lan bera egitera ordainsari- eta lan-baldintza okerragoetan.

Kontuan hartu behar da akordioak finantza-zerbitzuak desarautzeko kapitulu bat duela, eta horrek inpaktu negatibo handia izan lezakeela ekonomian, aurrekontu publikoetan eta herritarren ongizatean. Europar Batasunaren merkataritza-akordioen ondorioz murriztu egin da Europar Batasunaren eta beste herrialde batzuen arteko lankidetzak, zerga-iruzurra edo -ihesa eragoztekoa eta mundu osoan zerga-iruzurraren edo -ihesaren aurkako arau zorrotzagoak ezartzekoak, halako moduan non ahalbidetu egin baitira zerga-ihesen kasuak, zerga-ingeniaritzako trikimailuak eta zerga-paradisuen erabilita gertatuak.

Akordio horretan ez da jasotzen “zuhurtzia-printzipioa”, hartara arrisku larrian jarrita bai giza osasuna bai ingurumena, eta ez da egin horri buruzko eztabaida demokratiko eta zabalik, nazioetako nahiz erregioetako parlamentuek berreste-prozesuan parte hartu ahal izatekorik.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak, Europar Batasunaren eta Kanadaren artean negoziatzen ari diren akordio-proiektuak izan litzakeen ondorio negatibo handiak aurreikusirik, adierazten du arbuiatu egiten duela “Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala” (ingelesez, CETA-Comprehensive Economic and Trade Agreement).

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du jarrera hori adieraz eta defenda dezan parte hartzen duen Europa-mailako organo eta erakundeetan; esate baterako, Erregioen Batzordean.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du parte hartzen duen foro guztietan aintzat har eta defenda dezan akordioa berre-

tsi aitzin erreferendum bat egin beharko dela betiere, Europar Batasuneko estatu kide guztietan, Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko merkataritza-akordio baterako proposamen orori buruz; eta defenda dezan, halaber, munta horretako auziei buruz aurrera eramaten den negoziazio eta politika mota oro gardentasunez eta herritar guztien eskueran egitea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du hark bere aldetik Espainiako Gobernuaren premia dezan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari eska diezaion akordio horren eta Europako tratatuen arteko bateragarritasunari buruzko irizpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 218 (11) artikulua oinarri hartuta, ekidite aldera Europako tratatuekin bateraezina den akordio bat gauzatzea, eta ez dezan akordioa berrets harik eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bere iritzia eman arte.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du hark bere aldetik Espainiako Gobernuaren premia dezan CETAREN behin-behineko aplikazio oro errefusatzera, eta Europako Batzordeak itxaron behar izan dezan harik eta berreste-prozedura nazional guztiak burutu arte, europar herritarren ahotsa entzute aldera akordioaren balizko indar-hartzea baino lehen.

6. Jakitera emanen da Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten duela akordio-proiektu hau negoziatzean darabilten ezkutukeria, arbuio honi publizitatea emanez eskueran dituen hedabideetan, eta erraztu eta sustatu egiten da herritarrei CETARI buruzko informazioa ematea, bai berariazko kanpainak eginez, bai Parlamentuaren jardura publiko arruntean.

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentariak: David Anaut Peña, Rubén Velasco Fraile eta José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak 1936ko kolpe militarren biktima izatea aitortzen baitie Sanjurjo Tertzioan izena emandako eta San Gregorio Zelaian fusilatutako nafar herritarrei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak 1936ko kolpe militarren biktima izatea aitortzen die nafar herritar horiei.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, pertsona horien memoria erreparatzeko beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren harremanetan jartzea Aragoiko Gobernuarekin, Zaragozako Udalarekin eta Errioxako Gobernuarekin, Sanjurjo Tertzioko bikti-

men omenezko monumentu bat paratzeko erabakia hartzeko. Administrazio ukituek zati berdinetan ordainduko dute monumentu hori, zeinak 1936ko urriko lehen egun haietan fusilatutako izan ziren Sanjurjo Tertzioko kideen izenak jasoko baititu. Halaber, Parlamentuak iradokitzen du monumentu hori Zaragozako Armadaren Akademia Nagusiaren lurretan jartzea”

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Urzainkin, Izaban eta Lesakan izandako lan-istripuetako azken biktimen familiei eta hurbilekoei, eta lan-istripu bat pairatu duten guztiei ere adierazi nahi die elkartasun hori.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Urzainkin, Izaban eta Lesakan izandako lan-istripuetako azken biktimen familiei eta hurbilekoei, eta lan-istripu bat pairatu duten guztiei ere adierazi nahi die elkartasun hori.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du laneko segurtasunaren arloko kontzientziazioan eta sentsibilizazioan parte aktibo izateko bere konpromisoa, eta orobat berresten du lan-prekarietatearen eta -istripuen salaketa; hartara, konpromisoa hartzen du lan-istripuak salatzeko elkarretaratzeak egiten jarraitzeko, istripu hilgarri bat gertatzen den bakoitzean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari proposatzen dio prozedura judizialean herri-akusazio gisa pertsonatu dadin, baldin eta kasuko lan-istripu hilgarriaren enpresaren aldetiko zabarkeria edo segurtasun-neurririk eza gertatu bide bada.

4. Nafarroako Parlamentuaren borondatea da, ikusita Estatuaren eskumenekoa den Lan Ikuskaritza prebentzioaren arloan egindako lana ez dela aski, hartu beharreko neurriak har ditzan arlo horretako eskumena eskualdatzea ahalbidetzeko; bitartean, Lan Osasunaren Zerbitzuak indartu egiten ditu lantokietarako bisitak eta prebentzio-kanpainak”

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baititu Zainketa Aringarrien Nazioarteko Egunaren karietara mundu osoko erakundeek egiten dituzten aldarrikapenak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu Zainketa Aringarrien Nazioarteko Egunaren karietara mundu osoko erakundeek egiten dituzten aldarrikapenak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Zainketa Aringarrien Nazioarteko Egunaren goiburua: «oinazearekin bizi eta hil, gertatu beharko ez litzatekeen zerbait».”

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetu dadin Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Ezkerreko Ezkerreko foru parlamentarien elkarrekin aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez gobernu zentrala premiatzen baita Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko

Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan. Mozioa 2016ko uztailaren 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruñean, Lizarran eta Tuteran erresonantzia magnetikoen zerbitzua emateari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Iruñean, Lizarran eta Tuteran erresonantzia magnetikoen zerbitzua emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako

galdera hau aurkeztzen dio Osasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

– Zergatik atzeratu da Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzua ematen hasteko eguna?

– Noiz egonen dira erabilgarri ekipo berriak –Iruñekoa eta Lizarrakoa, bi unitate berri gehi laguntzako bat (Tuterakoa) ; Tuterarako, unitate bat gehi laguntzako bat (Iruñekoa)–?

– Tuterako osasun-barrutiak noiz edukiko du erresonantziatarako itxaron-gela?

– Enpresak ba al dauka esleipenaren egunean zerbitzua emateko kaudimen tekniko eta ekonomikorik?

– Zer ezaugarri dituzte ekipo berri horiek?

– Baldintza-orria betetzeko kontratatutako langileen zerrenda.

– Ekipo berriak zer egunetan erosi dira eta zein da ekipo berrien osasun-baimenaren data?

Iruñean, 2016ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzuko itxarote-zerrendei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzuko itxarote-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Osasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

– Zein izan da Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzuko itxarote-zerrenda, egunez egun, 2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko irailaren 26ra bitarte?

– Itxarote-zerrenda maiatzaren 1ean, ekainaren 1ean, uztailaren 1ean, abuztuaren 1ean eta irailaren 1ean.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko

Erregelamenduak dioenari jarraiki, honako galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

2016. urteko aurrekontuetan, Osasun Departamentuari dagokion atalean, honako partida onartu zen: “540004 52800 1220 311100 Programas prioritarios y estrategias de listas de espera.”

Partida berria izanda, eduki malgua eta zabala izan dezakeena, honako galderak egiten dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

– Zein da partida honen erabilpen eta exekuzio zehatza?

– 2016. urtea amaitu bitartean, zein da partida honen erabilerarekiko Osasun Departamentuak daukan aurreikuspena?

Iruñean, 2016ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

Galdera, behar adina ikasgela ez edukitzeagatik ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa berreskuratu ezin izan duten ikastetxe publikoei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, behar adina ikasgela ez edukitzeagatik ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa berreskuratu ezin izan duten ikastetxe publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta

hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zenbait ikastetxe publikotan –A/G, A/G PAI eta G PAI eredukoak dira horiek guztiak– ezin izan da berreskuratu ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa, horretarako behar adina ikasgela ez edukitzeagatik. Ikastetxe horiek 17 irakasle-saio gehigarri edukiko dituzte maila bikoiztugabe bakoitzean, laguntzak, bikoizketa puntualak eta abar egin ahal izateko.

Hori guztia dela eta, honako galdera hauei idatziz erantzutea nahiko nuke:

1.- Departamentuak zer aurreikuspen darabil unitate horiei dagokienez?

2.- Departamentua saio gehigarri horiekin jarraitzearen aldekoa da, edo unitate-bikoizketarekin?

3.- Departamentuak ikastetxe horietan inolako handitserik egiteko asmorik al du, ikastetxe horietako espazio-beharrizanak arintzeko?

Corellan, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Hezkuntza Departamentuak bertan behera utzitako edo geroratuak jarduketei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak bertan behera utzitako edo geroratuak jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

UPNren ekimen bati emandako erantzunean, Hezkuntza Departamentuak abuztuaren 2an onartu zuen honako jarduketa hauek bertan behera utzi edo geroratu egin behar izan direla Departa-

mentuaren aurrekontuan egindako murrizketen ondorioz:

1.- Bertan behera utzitako jarduketak:

– Berriozarko pista estalia (317.351,24 euro).

– Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoko tailerrak (110.691,60 euro).

– Murchanteko Ikastetxe Publikoko "idas" psikometriko gela (115.924,89 euro).

2.- Geroratu diren jarduketak:

– Atarrabiako "Lorenzo Goicoa" Ikastetxe Publikoko jantokia, hezkuntza-erkidegoan akordioa lortu arte (409.113,12 euro).

– Uharteko DBHIn automozio-nabe berria eraikitzea (guztira, 610.417,51 euro).

Gobernuko lehendakariak Foru Araubideko Bartzordean informatu zuen aurrekontu-doikuntzak zuzendu egin zirela hasierako aurreikuspenaren ondoren, eta azkenean 7 milioi eurokoak izanen zirela.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zer arrazoi egon da goian adierazitako jarduketa zehatzak bertan behera uzteko?

2.- Zeintzuk dira Departamentuaren aurreikuspenak jarduketa horiek egiteari dagokionez?

Corellan, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, A erudian eta D erudian Haur Hezkuntzako lehen mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara bitarte komunikazio-hizkuntza gisa euskara duten saioak gehitzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, A erudian eta D erudian Haur Hezkuntzako lehen mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara bitarte komunikazio-hizkuntza gisa euskara duten saioak gehitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Hezkuntza Departamentuaren ustez, A erudian eta D erudian Haur Hezkuntzako lehen mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara bitarte komunikazio-hizkuntza gisa euskara duten 2 saio gehiago egiteak hezkuntza-legedia urratzen al du?

Departamentuak hori egiten ari den ikastetxerik ezagutzen al du?

Zer neurri hartu ditu legezketasuna berrezartzeko, baldin eta legea bete ez bada?

Corellan, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, etxetresna elektrikoak konpontzeko jarduera ekonomikoari zergak jaisteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, etxetresna elektrikoak konpontzeko jarduera ekonomikoari zergak jaisteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Etxetresna elektrikoak konpondu eta abarrerako jarduera ekonomikoari zergak jaisteari dagokionez –Europako zenbait lurraldetan hori aurreikusten da–, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du hori dela-eta? Nafarroan beste horrenbeste egiteko zer aukera ikusten du?

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko arlo ezberdinetako lankidetzajarduketei eta -esparruei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko arlo ezberdinetako lankidetzajarduketei eta -esparruei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroa osoaren lurralde-antolamenduari eta -integrazioari dagokienez, parlamentari honek jakin nahi du ea zeintzuk diren Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko arlo ezberdinetako lankidetzajarduketak eta -esparruak, datozen hilabeteetarako aurreikusiak.

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro